



Getxo Rugby Taldea jokatzen dabil Ipar eta Hego Euskal Herriko klub en arteko sariketa. ▶22

Erika Bilbao epaitzen hasiko dira maiatzaren 17an, Madril en; dio hai entzat amaitu bako gatazkaren «gerra-trofeoa» dela bera. ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



59. zenbakia

2016ko
maiatzaren 11tik
maiatzaren 18ra arte



© ALAZNE CAMPO

Askartza, uretan nagusi

▶18

HERRIZ HERRI BERANGO

Erdi Arora salto egingo dute berangoztarrek

Hilaren 13tik 15era, Berangoko Moreaga parkeak Erdi Aro Azoka hartuko du; egun horietan, ekimen ugari egongo dira aukeran. ▶08



Komunikatuz eraldatu jardunaldiak

Eguen honetan, maiatzak 12, *Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komunikabideak* goiburudun mahai-ingurua egongo da, Algortako Azebarri kultur gunean; saioa euskaraz eta gaztelaniaz izango da, 19:30etik aurrera. Berbaldian parte hartuko dute hauek: Carlos (bideo bitartez) eta Fakun Aznarez kazetari argentinarrek; Arantza Santesteban historialari, komunikazio eta genero kontuetan adituak; eta HIRUKAko kideek. ▶12

Badatoz Getxoko sanisidroak!

▶4



Asuako ibaia garbituko dute maiatzaren 22an, kanoa gainean doazela, Ekinaren Egunean. Izen-ematea zabalik dago. ▶5

Leioako Udalaren UDA16 aisialdi-egitasmoan izena emateko aukera dago, maiatzaren 16tik 20ra; gero, zozketa egingo dute. ▶6

Sopelako 20 langabetuk edo ekintzailek parte hartuko dute *Aurrera jo eta ekin* prestakuntza-programan. ▶7

Urdulizko Andra Mariko jaietarako kartel-lehiaketa abiatu dute. Lanak ekainaren 3ra arte aurkez daitezke. ▶8



Egin, egiten gara

LUR MORAGUES SAITUA
Bilgune Feministako kidea

Bizi gara! Bake faltsuaren urtikaria testigu

Etxera buelta eta ostabere eguneroko sentimenduen zentrifuga. Algortan metroz sartu eta dermatitisak joko ninduela jakin nuen: Iturribarriko basakeria aspaldi hustuta beharko lukeen pikoletoen kuartelak jarraituta. Urak kalte gehien eragiten dituen Gobelako arro zatiaren magala porlanez estaltzea ez da gerora obra batekin konpontzeko tontokeria. Pertsonak kategoriadun zenbakiak gara eta ingurunea monopoliko tableroa, merkatu interesek jotako sasi-demokrazia hauetan. Injustiziak nonahi, zein baino zein gordinagoa. Mundu mailatik etxeraino. Amorrua eta ezinegona! Eta hori salatzean, mugei aurre egin nahi izatean, zast! Legaletik isunak, paralegaletik irainak esaterako. Kontrola eta boterea baino nahi ez dutenek engainua eta jazarpenaren beharra izaten dute, beti ere bakea, askatasuna eta demokraziaren izenean! Eskerrak uste baino azkarragoak garen, eta BAKEA jada BEHAR ez DUGULA aditzera ematen dutenei adibidez, kasurik egiten ez diegun! basquelivesmatter #9+47, denak libre nahi ditugu! Martxotik hona ikusitako ekimen feminista guztiekin baina itxaropentsu, pozik! Ez da moda, patriarkatuari zabalduetako beste arrakala bat baizik. Gutxietsitako biztanleria honek duen botereaz jabetzeko bideak. Txiki Otaegin eraikitzen hasitako zaintzartasuna Sastraka antiseixistakoek hasitakoaren jarraipena ere bada. Ekainaren 11rako ilusioa daukat. Erandion eskualdeko feministok, Erika barne, elkar topatzeko, ikasteko, eraldatzeko eta gozatzeko ilusioa! Korapilatuta merkatuak gaituen pendulutik atera gaitezkeelako. Zaintza gure bizitzan erdigunean ganoraz kokatzea lortuko dugulako. Euskal Herri benetan aske baterantzko pausoak ematen ari garelako. ◀

Getxo

Parkeak euskaraz betez

Maiatzeko hiru barikutan, Parkean Olgetan ekimena eskainiko du Egizuren Sendi proiektuak.



Getxoko hiru parketan egingo dute egitasmoa.

Euskara parkeetara eroateko Parkean Olgetan ekimena martxan ipini du, aurton ere, Egizu Getxo euskaldun euskara-elkartearen Sendi proiektuak, Getxoko Udalaren laguntzagaz. Helburu hori lortzeko, jolasak eta gurasoen parte-hartzea sustatu gura dituzte an-

tolatzaileek, maiatzeko hiru barikurastitan, udalerriko hiru parketan.

Lehenengo hitzordua bariku honetan izango da, hilak 13, Getxoko Malakate parkean; bigarrena, hilaren 20an izango da, Areetako Eskoletako plazan, eta, azkena, Algortako Aldapa parkean egingo dute, hilaren 27an.

Egitaraua

Maiatzak 13, Getxo

17:30-19:00 Malakate parkea (Andra Mari).

Maiatzak 20, Areeta

17:30-19:00 Eskoletako plaza.

Maiatzak 27, Algorta

17:30-19:00 Aldapa parkea.

Hiru barikuotan, 17:30ean ipini dute hitzordua, eta iragarri dutenez, saioek arrastiko 19:00ak arte irautea aurreikusten dute. Sendikoek azaldu-takoaren arabera, ekimenaren bultzatzaileak jolasteko gune horietara hurbilduko dira, eta umeak eta gurasoak gonbidatuko dituzte hainbat jolasetan euskaraz parte hartzera.

Jardueretan parte hartu ahal izateko, ez da aurretik izen-ematerik egin beharrik, bertaratzeagaz nahikoa izango da. Getxoko hainbat ikastetxeren eta guraso-elkartearen laguntza izango du egitasmoak. ◀

info+: sendigetxo@yahoo.com
685 732 963

Futbola, emakumeak eta euskara izango dituzte berbabide

Irene Paredes Athleticen jokalaria eta Gaizka Garitano jokalaria eta entrenatzaile ohiak Getxo bisitatuko dute datorren maiatzaren 19an, egunean. Izan ere, hitzaldia antolatu dute egun horretarako, Algortako Fadura kiroldegian. Hitzaldian, futbolaren, emakumeen eta euskararen gainean eta hiruren arteko egoeren inguruan egingo dute berba gonbidatu biek. Arrastiko 07:30ean hasiko da ekitaldia, Fadura kiroldegiko areto nagusian. Berbaldia euskaraz eskainiko dute hizlariak, eta sarrera doakoa izango da. Irene Paredes (Legazpi, 1991) Legazpiko Ilintxa taldean hasi zen futbolekin, 2003-04ko denboraldian. Ondoren, Real Sociedad taldean ibili zen, hiru denboraldi, eta, 2011z geroztik, Athletic Clubean dabil jokatzen. Gaizka Garitano (Derio, 1975), berriz, Athleticen harrobian hasi zen, eta, ondoren, hainbat urte Eibar KE taldean egin zituen. Horren ostean, Realen jokatu, eta Deportivo Alavesen eman zion amaiera bere jokalaria-ibilbideri. Eibarren eta Real Valladoliden entrenatzaile jardun du. ◀

Bapiruke UDALEKU IREKIAK

1. Ekainak 27-Uztailak 1 | 2. Uztailak 4-15 | 3. Uztailak 18-29

Izena emateko epea eta ordutegia:

- Bazkideentzat: maiatzaren 16, 17 & 18 (egunero 10:00-13:15; 16 eta 18n ere 16:30-18:00).
- Bazkide ez direnentzat: maiatzaren 23, 24 & 25 (egunero 10:00-13:15; 23 eta 25ean ere 16:30-18:00).

Udalekuetako tokiak eta adina:

- 1.txanda Aldai Patronatua (2004-2011 urte bitartean jaiotakoak)
- 2. & 3. txanda Romo eskolan (2004-2011), J.B. Zabala eskolan (2004-2008) eta San Nikolas ikastolan (2009-2011).

Kolonietako ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan 9:00-13:30; astearte eta ostegunetan 9:00-17:00 (irteera egunak).

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea, Martikoena kalea 16, 2. solairua - 4. bulegoa, Algorta (Alango).
94 491 03 87 | bizarralepoan.eus | info@bizarralepoan.org

Udalekuen inguruko informazio gehiago eskuorrietan (kultur etxeetan, liburutegietan, kiroldegietan...).



Getxo

Gizarte Zerbitzuak

Guztira, 5.719 pertsona artatu zituzten iaz Getxoko gizarte-langileek.

Udalaren Gizarte Zerbitzuek 3.009 familia-unitate artatu zituen iaz; guztira, 5.719 pertsona (%57, emakumeak eta %43, gizonak). Artatutako kasuetatik, 1.360 berriak izan ziren, 2014an baino 77 gehiago. Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak nabarmendu duenez, «Gizarte Langileek zerbitzuen eta diru-laguntzen gaineko informazio zuzena eskaintzen die pertsonaei eta familiei, besteak beste». Aurreko urteetan bezala, zerbitzua eskatzeko arra-

zoi ohikoena bizitzeko baliabiderik ez izatea izan zen; eta ostean, norberaren autonomiaren beharra agertzea, eta dauden baliabideei buruzko informazio gehiago eskatzea.

Bestalde, iaz Gizarte Larrialdia-
ren Laguntza emateko epeak murrizteko lan egin zuten Gizarte Zerbitzuek; guztira, 710 laguntza eman zituzten (2014an baino 29 gehiago), 894.072 euro, guztira; horietatik, Udalak 256.019 euro jarri zituen. Eskerak egiteko arrazoi ohikoena 2015ean alo-

kairuaren eta ostatuaren gastuei aurre egiteko izan zen, eta, ostean, etxebizitzako mantentze-lanetarako. Iaz aurreko urteetako zorrei aurre egiteko eskatutako diru-laguntzen kopurua handitu egin zen, etxebizitza-gastuei lotutakoak batez ere.

Halaber, Udalak aldizkakoak ez diren 116 laguntza eman zituen iaz, 147 gastu zehatzei aurre egin ahal izateko, 130.000 euro, guztira (2014an baino 50.000 euro gehiago). ◀

info ++: www.getxo.eus

Algortan, tailerrak nagusientzat, zelan ez jausi ikasteko

Pertsona nagusiak jaustea prebentziko doako tailerrak antolatu dituzte Algortan. Lehenengo saioa maiatzaren 17an, martitzenean, izango da Villamonte kaleko kultur etxean, 11:00etan. Bigarrena, berriaz, maiatzaren 24an izango da, Fadura kiroldegian, ordu berean. Bertaratu gura duten 64 urtetik gorakoek izena eman beharko dute maiatzaren 13a baino lehenago Itzubaltzeta/Romoko Ibar Nagusien Etxean, edo 944 660 150 telefono-zenbakian. Antolatzaileek azaldu dutenez, jaustea da istripurik ohikoena adineko pertsonen artean. ◀

Errefuxiatuei helarazteko diru-laguntza onartu dute

Udalak 6.000 euroko larrialdiko diru-laguntza emango dio Unicef GGKEari, Jordaniako Za'atari errefuxiatuen kanpamentuetara helarazteko. Siriako gatazkatik ihesi, pertsona asko daude bertan. Laguntza helburua da ura eta saneamendua hobetzea kanpamentuetan, gaixotasunei aurrea hartzeko. Horretarako, ur edangarria gordetzeko eta ura ondo mantentzeko azpiegiturak ipini gura dituzte; higienarako kitak banatuko dira; eta ura ondo mantentzearen eta higienaren garrantziaz kontzientziatzeko jarduerak sustatuko dira. Hori dena 8.950 pertsonari zuzenduko zaie. Za'atari kanpamentua 2012ko uztailan zabaldu zuten, eta, ordutik hona, 500.000 pertsona errefu-

xiatu igorri dituzte bertatik. Gaur egun 80.000 daude, eta, horietatik, %20 5 urtetik beherakoak dira. Diotenez, eremuan, eguneroko laguntza ematen zaie errefuxiatuei, hau da, ostalua, 35 litro ur, 2.100 kilokaloriako janaria, pertsona bakoitzeko, eta heziketa- eta osasun-zerbitzuak.

Elkarretaratzea, barikuan

Bestalde, Getxoko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak elkarretaratzea egingo du hilaren 13an, 20:00etan, Areetako Xake plazan, Europar Bata-sunak eta Turkiak sinatutako akordioa errefusatzeko. Ondoren, 21:00etan, *Dheepan* filma proiektatuko dute, Andres Isasi musika-eskolan. ◀



Teresa Noceda Artatza-Romo BHI institutuko DBHko 2. mailako ikasleak irabazi du Airakurri literatura-saria, *Jara* liburuaren inguruan egindako iruzkinari esker. Lehiaketaren helburua izan da irakurzaletasuna bultzatzea eta gazteak literatur kritikari bihurtzea.

**KOMUNIKATUZ
ERALDATU**
Herriak euren komunikazioaren jabe

JARDUNALDIAK /// JORNADAS

Herri indigenak – Herri-komunikabideak – Komunikazioa Eraldaketa Sozialerako
Pueblos Indígenas – Medios populares – Comunicación para la transformación social

SOPELA - GETXO

Antolatzaileak

MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

hiruka
www.hiruka.eus

Babeslea
www.babeslea.org

Latinoamerikako gonbidatu indigenen eta bertako kazetari eta komunikatzaileen parte-hartzearekin
Con la participación de comunicadores y comunicadoras indígenas de Latinoamérica

DOAKO SARRERA

MAIATZEKO OSTEGUN DENETAN / TODOS LOS JUEVES DE MAYO - 19:30ean

Maiatzak 19 – Villamonte kultur etxea (ALGORTA):
Dokumental emanaldia: “Resistir o Morir: denuncias, visiones y propuestas de los pueblos indígenas” + Berbaldia gonbidatu komunikatzaile indigenekin

Latinoamerikako gonbidatuak: Bashe Nuhem eta Iván Sanjines

Informazio gehiagorako:
Para más información:

www.mugarikgabe.org

@mugarikgabe

Mugarik Gabe

www.hiruka.eus

@HirukaEus

HirukaEus

#komunikatuzeraldatu

Getxo

Getxon, sanisidroetarako, prest!

Hilaren 12tik 15era izango dira Getxoko (Andra Mari) jaiak; autobus-zerbitzua doan eskainiko dute.

Daborduko jaien usaina hartzen dabil Getxo, musika, festa, dantza eta egundoko giroa! Maiatzaren erdialdean, San Isidro jaien ordua heldu da: nekazari, laborari eta baserritarren omenezko jaiak antolatzen dira, udalerritari izena ematen dion gunean. Aurten, Geroako 6. mailako ikasleek txupina botatzeagaz batera, jaiak hasiko dira eguen honetan, 17:30ean. Ondoren, txokolatea banatu, eta slack-linlean ibiltzeko aukera eskainiko dute Malakate parkean, 18:00etan. Eta gaua girotuko dute Outlaw Rockers, Jarrera, Cadena de WC eta Ou mama taldeek, 21:00etatik aurrera. Hurrengo



Kontzertuak aparkalekuko agerlekuan izango dira.

egunean, barikuan, graffitiak, umeentzako jolasak, erromeria, mus-txapelketa eta kontzertuak egongo dira; Nebula Selektah, Solte eta Kolpatu taldeek joko dute. Zapatuko egitaraua osatuko dute herri-kirolek, bazkariak eta Itxas Argiaren Herrien Jaialdiak;

gauean Gora Herria taldeak dantzaziko ditu bertaratutakoak. Domekan, amaituko dira jaiak, esku-pilota txapelketa, herri-azoka, txorimalo-tailleria, eta beste hainbat egiteko egongo da. Aurten ere autobus-zerbitzua egongo da gauean. ◀

Ekitaldi batzuk

Maiatzak 12, eguena

18:00 Buruhandiak eta hankapaluak, Agurra taldeagaz. Malakatek abiatuta.

21:00 Kontzertuak, aparkalekuan.

Maiatzak 13, barikua

17:00 Graffitiak, Bentan.

19:00 Haur-erromeria, Malakaten.

19:30 Mus-txapelketa, Alkartetxen.

23:00 Kontzertuak, aparkalekuan.

Maiatzak 14, zapatua

11:30 Herri-kirolak, probalekuan.

14:30 Herri-bazkaria, Auzo elkarteak antolatuta, aparkalekuan.

21:00 Itxas Argiaren Herrien Jaialdia, frontoian.

23:00 Kontzertuak, aparkalekuan.

Maiatzak 15, domeka

10:30 Esku-pilota txapelketa, frontoian.

11:00 Herri-azoka, aparkalekuan.

17:30 Idi-probak, probalekuan.

Udal ludotekaren udako eskaintzan izena eman daiteke

Areetan dagoen Kukupraka ludotekak udan eskainiko duen astez asteko doako zerbitzuan izena emateko epea zabaldu du Udalak, hilaren 20ra arte. Eskoletako plazan dagoen ludotekak ekainaren 27tik irailaren 2ra arteko zerbitzua eskainiko du, 10:30etik 13:30era bitartean, astelehenetik barikura, jai-egunetan izan ezik. Ludoteka 5 urtetik 11 urtera bitarteko umei zuzendutako lekua da: astialdian modu dibertigarrian hezten ditu umeak, eta aldi berean, euskararen erabilera sustatzen du. Familia interesdunek zehaztu beharko dute zenbat aste eroan gura izango duten umea bertara; zein astetan, eta, bat baino gehiago bada,



asteen lehentasuna zehaztu beharko dute. Aste bakoitzeko txandan, 30 neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. ◀

izena-emateko: euskara.teknikaria@getxo.eus
info+: www.getxo.eus/euskara

Herri-udalekuetan izena emateko epea zabaldu du Udalak

Getxoko Udalaren Gazteria Zerbitzuak 5 eta 12 urte bitarteko gazteentzako herri-udalekuetan izena emateko epea ireki du, maiatzaren 19ra arte. Aurrekoetan legez, udalekuak uztail osoan eskainiko dira, bi asteko txandetan banatuta, Geroa Ikastolan eta San Inazio eta Romo herri-ikas-tetxeetan. Txanda bakoitzaren iraupena bederatzi egunekoa izango da (astelehenetik barikura). Egun horietatik, lautan txangoak egingo dituzte. Txangoa dagoen egunetan ordutegia 09:00etatik 17:30era izango da, eta gaitz nontzakoetan, 09:00etatik 14:00etara. Behar bereziak dituzten umeek beharrezko laguntzak izango dituzte. ◀

Bizkaiko Zubia mantentzeko 24.000 euroko laguntza

Bizkaiko Zubiaren jardueri eta mantentze-beharrei laguntzeko 24.000 euroko diru-laguntza ematea onartu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Hala, laguntzok 2016ko mantentze-plana eta jardueretako batzuk finantzatzeko balioko dute, berbarako: ainguraketa multzoen mantentzea, saneamendua, gurdia zaintzekoak, ekipoak, aholkularitza eta zubiaren eta haren testuinguruaren balioen berri emateko lana jorratzeko eta abarrerako. Bizkaiko Zubia monumentu historiko-artistiko izendatu zuen 1984an Eusko Jaurlaritzak, dekretu bidez. Halaber, Unesco gizateriaren ondare izendatu zuen 2006ko uztailaren 13an. ◀

GetxoGas

**GetxoGason
Euskararekin
bat!!**

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

KONTXI
ZVAVBIZKAR
Urdaitegixa
Kalitatezko elikagaiak
zure mahaian
Alangobarri 10, ALGORTA - 94 491 02 93

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokorra
• Ortodontzia
• Periodontzia
• PADI
Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa,
guzti denik ez pentsa»
Prentsa • Fruitu lehorrak
Aldizkariak • Liburrerriak
Orduña mendatea, 1. GETXO - 94 430 22 13

JUAN MARI
Harategia • Urdaitegia



**Baserriko haragia, produktu
artisaua eta etxeko zerbitzua**

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Erandio

Asua garbitzeko deia

Kanoa gainean doazela Asuako ibaia garbituko dute hilaren 22an, domeka, Ekinaren Egunaren bosgarren edizioan. Izena eman daiteke daborduko; ekimena doakoa da.



Erandioko Udalak eta RK Abentura enpresak lagunduko dute ekimena.

Nazioarteko Dibertsitate Biologikoaren eguna dela-eta, maiatzaren 22an, domeka, Ekinaren Eguna ospatu ohi du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Aztertu ingurumen-hezkuntzarako programak. Aurten, Asua ibaiko zaborra garbitzea izango da egunaren helburua. Horretarako, gura duten herritarrek kanoara igota ibaia garbitu ahal izango dute. Hitzordua 11:00etan izango da, Lutzana Arraun Elkartearen egoitzan. Taldetan banatu, eta kanoetatik, uretan eta hertzeetan dauden hondakinak kenduko dituzte. Zaborra sailkatu ostean, jasotakoa pisatuko dute, 13:30ean edukiontzietan sartu aurretik. Izen-ematea zabalik dago. ◀

izen-ematea: aztertu@euskadi.eus / 902 160 138



Potxingoak kaleetan

ANA TERESA
ESCUDERO BIZKARGUENAGA
Kazetaria

Hain gertu eta horren urrun: 700 metro

Berrogeita hamar segundo kotxez, neurtuz gero 700 bat metro. Horixe da Erandion bizi garenok itxasoa gertuago izateko dogun oztopoa, arraila. «Leioa kostako» basamortua esango neuke.

Zutabe honi izena emoten dautson kantuak dino: «*charcos en las calles, ni un triste paseo... y no te cambiamos por el mundo entero*» aspaldiko kantua da, orain paseoren bat badogu mendialdean zein beherago dagozan auzoetan, baina kantua baino zaharragoa dan eskakizun bera: itxasorantz eroango gaituen bidea errekatik egin ahal izatea. Erandio, Leioa eta Getxo arteko arraila gaudituko dauan zubia. Ez dogu haundikeriarik eskatzen. Ez dogu ur-gaineko paseorik behar. Izan be, badaukagu gure «malekoia» eta «itxas paseoa» (100 metrora heltzen ez dan arren). Ziur nago, holan, apur bat estutuz, bidegorria be negoziatu ahal izango genduke. Bai, errepidea garbitu, marra bat margoztu eta bide ertz zabal batekin konformatuko ginake.

Alde batetik bizitza eredu osasuntsuagoaren mezua zabalitzen dauskue, paseatzea da merkeena, holako leku lau batetik egitea erosoena.

Ez da udalen eskumena antza, Aldundiarena danik be ez dakigu, Espainiako Gobernuarena, Costas-ena dala dinoe. Bardin dautso, jarri zaiteze ados eta konpondu. Bertaraino heltzeko slaloma egingo dogu, horretara ohituta gagoz, ertzean aparkatutako kotxeak, kamioiak gaudituko ditugu. Alde batetik bestera gurutzatuko dogu babes bila baina beti izango dogu «Leioa kostako» basamortua zain.

700 metro horreek irabazi gura ditugu, oinezkoentzat, korrikalarientzat, txirindularientzat, rollerentzat... gura dauanak 5 segundoan egin dagizan, edo 5 minutuan edo 5 orduan. ◀

Altzagako jaietako zapia aukeratzeko lehiaketa abian da

Erandioko jai-batzordeak lehiaketa deitu du sanagustinetako zapiaren marrazkia aukeratzeko. Maiatzaren 31ra arte izango da lanak aurkezteko epea, 14:00etara arte. Diseinuak Kultur Arloan utz daitezke, udaletxearen beheko aldean. Marrazkiak lotura izan beharko du udalerriagaz. ◀

info+: erandiokojaibatzordea@hotmail.com

Udaleku artistikoak izango dira Astrabuduan eta Altzagan

Art Libitum elkarteak eta Lastima Teatro-konpainiak udaleku artistiko bana antolatu dute, hurrenez hurren Astrabuduan eta Altzagan. Bietan, musikak garrantzi handia izango du. Astrabuduan, 4 eta 12 urte bitarteko umeek ingelesez egingo dituzte jarduerak, eta Altzagan, osteraz, 5 eta 14 urte bitarteko nes-

ka-mutilek. Udaleku bien lehenengo txanda ekainaren 27tik uztailearen 12ra izango da, eta, bigarrena, uztailearen 14tik 29ra. Ordutegia 08:30etik 14:30era izango da. Izen-ematea daborduko egin daiteke, maiatzaren 27ra arte, Astrabuduko Udal Bulegoan edo Altzagan, udaletxean. ◀

info+: Hiruka.eus/erandio



Poloniako ikasle-talde bat Erandiora etorri da egunotan. Krakoviako Lyski institutuko dozena bat estudiante dira; euren etxeetan Erandioko institutuko hainbat ikasle hartu zituzten, pasa den urrian. Erandioko udal talde politikoeak harrera egin zieten. © ERANDIOKO UDALA

Axpeko puntu beltz bat desagerrarazi du Udalak

Erandioko Udalak oinezkoentzako bide bi, semaforoa eta hesi bikoitza ipini ditu Axpeko erriberan, Astrabuduko sarbidean. Obragaz, Udalak «segurtasun-arazoa» konpondu gura izan du, «asko» ziren-eta behar ez zuten lekutik errepidea gurutzatzen zuten herritarrak, trafikoa handia izan arren. «Ezer gertatu baino lehen» neurriak hartu, eta «puntu beltz bat» kendu izanagatik pozik agertu da Joseba Goikouria alkatea, oinezkoen bidea estreinatzean. Oinezkoen bideak zabaldu aurretik, bazen errepidea pasatzeko aukera, zubi moduko pasarella baitago bertan, baina deserosoa eta luzeagoa izanda, gutxik erabiltzen zuen; batzuetan eskailera-atalagatik. Ondorioz, errepidea zeharkatzen zuten. ◀

Leioa

UDA16rako izen-ematea, zabalik

Maiatzaren 16tik 20ra aukera egongo da Leioako Udalak antolatutako udako aisialdi-jardueretan izena emateko.

Gazte leioaztarrei zuzendutako UDA16 aisialdi-programan izena emateko epea maiatzaren 16tik 20ra egongo da zabalik; parte hartu gura duten guztiek Sakoneta kiroldegira joan beharko dute, 09:00etatik 21:00etara. Behin-behineko onartuen zerrenda, maiatzaren 24an eta 25ean argitaratuko dute. Hala, erreklamazio-epea igaro ostean, ekainaren 1ean, 11:00etan egingo da zozketa, Sakonetan.

Zehazki, 2003 eta 2009 artean (biak barne) jaiotako neska-mutilek parte har dezakete egitasmoan; aurten ere,



Kirola, kultura eta aisialdi osasuntsua bultzatzea da helburua. © LEIOAKO UDALA

7 eta 13 urte bitarteko 800 ume eta gazte ibiliko dira jardueretan.

Iaz egin legez, hamabostaldi bitan zatituko dute UDA programa: uztailaren 5etik 15era, eta uztailaren 18tik

29ra. Ekintzen artean azpimarragarriak dira kirolak, tailerrak, txangoak eta bestelako irteerak. Gazteen artean, kirola, kultura eta aisialdi osasuntsua sustatzea da helburua. ◀

Oinarriak

Nork parte har dezake?

2003 eta 2009 artean jaiotakoak (2016ko apirilaren 1a baino lehen errolatuak).

Hizkuntza

Euskara ala gaztelania aukera daiteke.

Txandak

Bi txanda; 400 ume bakoitzeko:

- Uztailaren 5etik 15era eta 18tik 29ra.

Salneurriak

- Leioako Udal Kirol Instalazioetako bazkideak direnak: 41,10 euro.

- Leioako Udal Kirol Instalazioetako bazkideak ez direnak: 66,75 euro.

Eskaerak aurkeztea

- Izen-ematea: maiatzaren 16tik 20ra.

- Erreklamazioak: maiatzaren 24tik 27ra.

- Zozketa: ekainak 1, Sakoneta kiroldegian.

info+: www.leioa.net

Leioa «herri-segurua» dela ondorioztatu du Udaltzaingoak

Udaltzaingoak emandako datuen arabera, 2015ean mantendu egin zen atxiloketen eta salaketen kopurua; eta auto-harrapaketak erdira jaitsi ziren. Hala, Leioak «herri segurua» izaten segitzen duela ondorioztatu dute polizia-arduradunek. Baina, iazko emaitzak onak izan arren, aurten lantaldea indartuko dutela jakinarazi dute udaltzainburuek: erretiroa hartuko duten bost agenteak ordezkaturiko dituzte-eta; horrez gainera, beste ofizialorde bi hartuko dituzte. Gaur egun, 41 udaltzain daude Leioan.

Trafiko arau-hausteei dagokienez, Leioako udaltzainek 2.352 isun jarri zituzten 2015ean, eta denera, 225.722 euro batu; «aurreko urteetan baino

gutxiago», nabarmendu dutenez. Auto-harrapaketei dagokienez, hamar jazo ziren.

Bestalde, emakumeen aurka indarkeriari erabiltzeagatik zazpi salaketa tramitatu zituen Polizia leioaztarrek; eta etxeko indarkeriari (aita-amak, seme-alabak...) lotutako beste bat. Aurreko urteetan egin legez, genero-indarkeriaren sei biktima zaintzeko lanak egin zituzten udaltzainek, 2015an; 330 ordu, guztira.

Azkenik, Leioako udaltzainek bederatzi lagun atxilotu zituzten iaz, ebasketa edo lapurreta-ahalegina egotzita; bide-segurtasunaren kontrako delituen bat leporatuta, sei pertsona hartu zituzten. ◀

Auzoetako jaiak antolatzeko laguntza eska daiteke

Daborduko, auzoetako jaiak antolatzeko diru-laguntzen deialdia zabalik dauka Leioako Udalak; eska-bideak, gutxienez, dagozkion festak hasi baino hilabete lehenago aurkeztu beharrekoa dela gogoratu dute agintari leioaztarrek. Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharra dago. Hala, auzoetako jaien artean 45.828,59 euro banatuko dituzte; «eskatzaileen artean eman beharreko diru-laguntzek ezin dute jardueraren aurrekontu osoaren %40a gainditu», zehaztu dutenez. Eskaeragaz batera, besteak beste, diru-laguntza eskatzen duen elkar-tearen estatutuak, IFKren fotokopia eta festetako proiektu zehaztua aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek. ◀

Doako laguntza psikologikoa, gaixoen senideentzat

Zainduz egitasmoaren barruan, euren ardurapean senideren bat daukaten pertsonentzat doako laguntza psikologikoa eskaintzen dabil Leioako Udala. Taldea martitzenero elkartzen da Sabino Arana kaleko 67 zenbakiko udal bulegoan, 10:45etik 12:30era. «Bertan, jagoleen ongizatea hobetzeko jarraibideak lantzen dira, horrelakoetan aditua den psikologo baten laguntzagaz», agintari leioaztarrek azaldu dutenez. Talde horietan parte hartu gura dutenek Gizarte Zerbitzuen udal-bulegora (Inaurratzaga, 1) jo dezakete. Horrez gainera, telefonoz ere deitzerik badute, zerbitzu horren gaineko informazioa jasotzeko. ◀

info+: 944 801 336

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatze hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Oinarrizko produktuak batzen dabil Sortarazi elkarteak

Sortarazi elkarteak laguntza eskatu die leioaztar denei, produktu zehatz batzuk eman ditzaten, elkartasunez. Beharrian handia daukaten familiei oinarrizko produktu kopururik handiena helaraztea da euren helburua, azaldu dutenez. Une hauetan, gehien behar dituzten produktuak honako hauek dira: esnea, pasta, olio, kakao, 4 eta 5 neurriko pixoihalak eta fruta potetxoak. Informazio gehia

go eskatu edo lagundu gura dutenei elkartera jotzeko eskatu diete. Bestalde, dirutan lagundu gura dutenek kontu-korronte batean sar dezakete dirua. Sortarazik modu aktiboan egiten du lan Leioan, beste batzuen artean, elikagaien banaketarako programan, Udal Gizarte Zerbitzuek bidaltzen dizkieten pertsonak laguntzeko. Ibarrabarrri poligonoan daude, D2 moduluan. ◀

info+: 944 805 490 / hazia@sortarazi.org

Sopela

Lanerako trebakuntza

Sopelako Udalak langabetuei eta ekintzaileei zuzendutako *Aurrera jo eta ekin* prestakuntza-programa jarriko du martxan maiatzaren 16an; 20 sopoloztarrek parte hartuko dute. Hala, egun horretara arte egongo da izena emateko aukera; udaletxera edo herritarren arretarako bulegoetara jo beharko dute interesa daukaten lagunek.

Horretarako, metodologia zehatza eta taldeko edo banakako tresnen erabileraz baliatuko dira, ibilbide bitan oinarritutako sei prestakuntza-tailerretan. Zehazki hurrengoak izango dira prestakuntza-ibilbideak: enplegu-bilaketa, langabetuei edo enplegu-bilaketan zailtasunak dituzten pertsonen zuzenduta; eta ekintzailetzat: ekintzaile, profila daukaten edo enpresa-ideiak garatu gura dituzten langabetuei zuzenduta. Interesdunek ho-



Udalak antolatutako egitasmoan 20 sopoloztarrek parte hartuko dute.

nako eskakizun hauek bete beharko dituzte: Sopelan erroldatuta egotea; enplegu-eskatzailea edo ekintzailea izatea, edo enplegu-bilaketa aktiboan egotea; gutxienez 16 urte edukitzea,

eta nahitaezko erretiroan egoteko gehiegizko adina ez gaintitzea; eta Eskola Graduatua, DBH edo titulu balio-kideren bat edukitzea. ◀

info+: sopelaudala.org

Maiatzaren 29an Ibilaldira joateko autobusa ipiniko dute

Sopelako Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak autobus bat antolatu dute, maiatzaren 29an Durangon egingo den Ibilaldira joateko. Gutxienez 15 pertsonen eman beharko dute izena; «kopuru horretara heltzen ez bada ere, Gorliz zein Plentziatik aterako den beste autobus batean joateko aukera egongo da», azaldu dute agintari sopoloztarrek. Izena emateko epea maiatzaren 27ra arte egongo da zabalik; udaletxean, Sopelaren bulegoan, Kurtzio kultur etxean eta Sopelako Udaleko web-orrialdean egin ahal izango da. Salneurriei dagokienez, Sopelan erroldatutako lagunek 5 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontze-koek, 8 euro. Autobusa 09:00etan irtengo da Urgitxietara plazatik; 09:15ean Sopelako elizan ere geldialdia egin eta hartuko ditu bidaiariak. 20:00ak aldera etorriko da bueltan. ◀

Zigor Merodioren Aldharrikatuz erakusketa ikusgai

Maiatzaren 19ra arte, Zigor Merodio preso politiko bilbotarraren *Aldharrikatuz* eskultura-erakusketa Kurtzio kultur etxean egongo da ikusgai. Iazko azaroan zalaparta handia sortu zuen gaiak: EH Bilduk esposizioa egiteko baimena ukatu izana egotzi zion EAJri eta PSeri. Ziotenez, 2015eko maiatzeko udal hauteskundearen aurreko gobernu-taldeak (EH Bildurena) hila-betea erreserbatuta zeukan erakusketarako. Ostera, jeltxideek gezurtatu egin zuten koalizioak esandakoa. Azaroaren 24ko osoko bilkuran esposizioa egitearen alde agertu zen Udalbatza; EH Bildu, DB-TU eta Orain udal taldeen aldeko botoakaz atera zen aurrera proposamena. ◀

Barre-terapiako saioak eskainiko ditu Zaindraz egitasmoak

Zaindraz egitasmoaren barruan, maiatzaren 17an eta 19an barre-terapiaren ikastaroa eskainiko dute Kurtzio kultur etxean. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak antolatuta, Ainhoa Pazos psikologian lizentziadunak emango ditu eskolak, 17:30etik 19:30era. Sarrera doan izango da mendekotasuna daukaten pertsonen jagoleentzat. Hurbileko zaintza eskaintzeko ekintzak eta zerbitzuak sartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiko Zaindraz programan. Autonomia pertsonala sustatzeko jardueren bidez, boluntariorzaren bidez eta zainzaileentzako laguntzaren bidez bideratzen da zaintza hori. ◀

info+: 946 763 999



Urko Fernandez-Castañeda Zipiriñe ikastetxeko LHko 4. mailako ikasleak irabazi du Bizkaidatz Txiki lehiaketaren bigarren saria; 9 urte dauzka. Bere ikasgelako neska-mutil denek parte hartu dute; eskolaz kanpoko orduetan (bazkalorduan, atsedendietan...) ibili dira lanean.

DIDAK
HAMILTON
IDIOMAS

Ingelesa · Frantsesa · Alemaniera

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6/Iberre 9 · 48600 SOPELA
94 676 30 12
info@didakhilton.com

ander deuna *hau herikuntzatik batxilergora*

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunailkastola.eus

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarriñe z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH Service
Car Service



Hitzen kliska

JUAN LUIS
MUGERTZA UNANUE
Irakaslea eta idazlea

«Gizaki zuzena», gizarteak behar duen espeziea

Nostalgikoek noiz edo noiz esanda, bestelakoa entzuten baldin badugu ere, egungo «gizaki zuzenak» ez omen du larritzeko arazo handirik. Tarteko ahaleginek, hazkurarena, esaterako, zenbait unetan, deseroso sentiarazi ohi badute ere, «gizaki prototipoaren» egoera ona da, orokorrean. Egunerokoetan oso eroso bizi da, eta bizitza luzea antzematen diote, batzuek bizi maila txarra dutelarik ere. Hori dela eta, espezieetan espeziezime-na ei da, arituen ustez. Izan ere, orain arte erabilitako txertoek sekulako arrakasta izan dute populazioaren sektore horretan, bereziki. Dirudienez, edozein egoeratan erraz moldatzeko ahalmenak lagundu egin dio mota honi maila guztietan zabaltzen. Lehen, estatusak bereizten omen zuen gainontzeko espezieengandik. Gaur egun, aldiz, nahiz eta mundua oso gaizki dagoela jakin, langile, langabetu, etorkin, gazte askok... bat egin ohi dute «gizaki zuzenaren» filosofiarekin, eta ez du oso gaizki ikusten, besteak beste, bere espeziekoak odola xurgatzen badio. Aukeran, beti hobeto gertukoak egiten badu urrutikoak baino. Bestalde, ezer gutxi behar dute barruko gosea baretzeko. Dirudienez, mundu ari-na nahi dugu: %0 gantz materia, edulkoratzaila... Gainera, gehienek hautetsontzia dute sabel zorriak elikatzeke modu bakarra, eta ausartenek, lantzean behin, taberna zuloa, dastalekua, telebista... aldarrikapenak egiteko bozgorailua. Beraz, zertarako aldaketarik, «gizaki zuzenaren» biziraupena garrantzizuta badago?

OHARRA:

Programaren zatirik handiena (%90) txukun gauzatu omen dute, eta oraingoan hauteskundeetan ere, inkesten arabera, «gizaki zuzenak» berriro irabaziko dute. ◀

Berango

Erdi Arora bueltan!

Maiatzaren 13tik 15era
bitartean, Erdi Aroko
Azoka egongo da Moreaga
parkean. Ikuskizun ugari
egongo dira.

Berangok denboran atzerantz egingo du aste-akabu honetan. Izan ere, Moreaga parkeak Erdi Aroko Azoka hartuko du barikutik domekara bitartean. Hala, modu askotako gauzak eskuz lantzeko tailerrak, antzerki-, magia-zein txotxongilo-ikuskizunak, musika-emanaldiak, ipuin-kontalariak eta falkoneria-erakusketak egongo dira gozagai, besteak beste.

Barikuan, hilaren 13an, emango diote hasiera egitarauari, azokan parte hartuko duten taldeen kalejiragaz, 17:00etan. Ordu berean, kanpamentua ipiniko dute martxan, eta saltokiak zabalduko dituzte; horregaz batera, agerlekuan eta bestelako guneetan ikuskizunak eskainiko dituzte. Tailerrak ere orduan hasiko dira, ia hogeia. Horietan begiraleak egongo dira, eta antolatzaileen berbetan, tailerrekin «izaera parte-hartzailea izango dute». Ondoren, 17:30ean, antzerki- eta musika-taldeek azoka girotuko dute. Txotxongilolaria, malabaristak eta magoak egongo dira, eta, horiekaz batera, zuzenean eskainitako antzezlanak eta ipuin-kontalarien saioak ere ikusi eta entzun ahal izango dira. 18:00etan, Pirueta Teatroren txotxongiloen txanda izango da; 18:30ean harraparien hegaldiaren era-



Ehunaka lagun hurbilduko dira aste-akabuan Berangoko Moreaga parkera. © TAMORLAN

kustaldia izango da, eta 19:00etan Lurte folk-banda aragoiarraren eta musika zeltan espezializatutako Jabardeus taldearen kontzertuak hasiko da. Taratuga Teatro taldeak azoka girotuko du 20:00etan, antzerki ibiltariagaz. 21:00etan, tailerrak eta erakusketak itxi ostean, musika eta antzerkia batzen dituen ikuskizuna hasiko da, 23:00etan. Zapatuko eta domekako jardunaldiak ikuskizun beragaz amaituko dira, 23:00etan eta 22:00etan, hurrenez hurren. Egun bi horietan, azoka 11:00etan zabalduko da, eta esparru osoan musika, antzerkia eta ikuskizunak egongo dira. Zapatuan harraparien erakusketa egingo dute 13:00etan eta 18:30ean; domekan, herri-kirolen erakusketa eskainiko dute 13:00etan, besteak beste. ◀

Ekitaldi batzuk

Maiatzak 13, barikua

17:00 Kalejira, eta azokaren hasiera.

19:00 Lurte eta Jabardeus musika-taldeen kontzertua.

23:00 Zezensuzko ikuskizun musikatua.

Maiatzak 14, zapatua

11:00 Azokaren eta tailerren irekiera.

18:30 Harraparien erakustaldia.

19:00 Antzerkia eta kale-animazioa.

Maiatzak 15, domeka

11:00 Azokaren eta tailerren irekiera.

12:00 Ipuin-kontalaria eta malabarrak.

13:00 Herri-kirolen erakustaldia.

20:30 Kaleko musika-ikuskizuna.

22:00 Zezensuzko ikuskizun musikatua, eta azokaren amaiera.

Urduliz

Andra Mari jaietarako, kartel-lehiaketa abiatu dute Urdulizen

Udaberria agortu baino lehen, uda ate joka dugu. Hori dela eta, bada garaia udako jaietara begira ipintzeko, udalerriko data garrantzitsu horiei behar legez eta ezusteko barik aurre egin ahal izateko. Hala, Urdulizko Udalak udalerriko jaietara irudiarazteko kartel-lehiaketa martxan jarri du. Azaldu dutenez, edozein pertsonak parte hartu ahal izango du horretan, eta aurkez daitezkeen lan-kopurua librea izango da, baita kartelaren gaia eta erabili ahal izango diren teknikak eta koloreak ere. Hala ere, neu-

rria zehaztu dute: 45 x 60 zentimetrokoa. Halaber, euskarri zurrunean finkatuta, eta hurrengo testuagaz aurkeztu beharrezkoa da: «Urdulizko jaiak Andra Mari 2016». Arduradunek jakinarazi dutenez, ez dituzte onartuko «norbanakoen osotasuna laidotzen dabezan kartelak, ezta homofobia-jarrerak eta sexukeria erakusten dabezan jarrerak, ezta gizon eta emakumeen artean desberdintasuna sustatzen dabezan jarrerak ere». Hala, interesdunek euren lanak aurkeztu ahal izango dituzte ekainaren 3ko 13:30ak

arte. Horretarako, lanak postaz zein aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira Urdulizko kultur etxean. Epaimahaia arteari lotutako adituek eta jai-batzordeko ordezkariak osatuko dute.

Lehiaketaren irabazleak 400 euro jasoko ditu, eta jaietako egitarauaren atarian agertuko da kartela. Erakusketaren egunetan, herritarren bozka gehien jasotzen dituen lanak, berriz, 100 euroko saria jasoko du. Halaber, sarituen artean ez dagoen lehenengo urduliztarak 100 euro lortuko ditu. ◀

info+: kulturo3@urduliz.net

Plentzia



info+: www.plentzia.eus. © DFID

Errefuxiatuentzako material-batzea

Joan den astelehenean, hilaren 9an, Greziarako bidea hartu zuten Solidarias en Accion elkarte bost emakumek, bertan dauden errefuxiatuak laguntzeko asmoz. Eurakaz batera eroan zuten zapatuan, hilaren 7an, Plentziako Ontziola plazan egindako errefuxiatuen aldeko jaialdian lortutako dirua, GKEak behar dituzten gauza guztiak Grezian bertan erosteko. Hala ere, oraindino ez da amaitu Plentziako herriaren jarrera solidarioa. Izan ere, bertako Udalak eta Izanik elkarrekin errefuxiatuei laguntzeko kanpaina berria ipini zuten martxan aurreko aste-

lehenean, maiatzaren 9an. Hala, hilaren 20ra arte, Jai Alai frontoia gerratik ihesi dabilzanentzako materiala batzeko egokitu dute, goizetan, 11:00etatik 13:00etara; eta arrastietan, 18:00etatik 20:00etara. Honako gauzak batu gura dituzte: epe laburrean galtzen ez diren jatekoak (esnea, latak, arroza, kontserbak...), ura edangarri egiteko pilulak, arropa, motxilak, mantak, izarrak, eskuoihalak, lo-zakuak, zauriak osatzeko materiala, kremak, eltxoen kontrako kremak, xaboi-pastillak eta umeentzako materialak (kotxeak, aulkiak, kumak...), besteak beste. ◀

Kantaguneak gorazarre egingo dio Jean Mixel Bedaxagarri



Jean Mixel Bedaxagar zubero-tar kantariak Plentzia bisitatuko du barikuan, hilaren 13an. Izan ere, Plentziako Kantagune taldeak omenaldia egingo dio abeslariari. Arrastiko 07:00etan ipini dute hitzordua, Dantzat gaztetxean. Ostean, kantu-jira egingo dute, eta egunari amaiera ema-

teko, afaria antolatu dute, Kai Eder jattetxean, 21:30ak aldera. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, eginkizun bietarako, bai omenaldirako bai afarirako, izen-ematea derrigorrezkoa izango da.

Omenaldia doakoa izango da; halere, afarira joan gura dutenek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Izen emateko azken eguna hilaren 12a, eguna, izango da.

Jean Mixel Bedaxagar 1953an Urdiñarben (Zuberoa) jaioetako euskal kantaria da. Kantuari ekin baino lehen, dantzari ibili zen, eta hiru zulo txirula zein ttun-ttuna jotzen ere badaki. Ahozko tradizioaren ordezkari nagusietako bat da. ◀

info+: www.plentziakantagune.eus

Emakumeei begirako sormen-idazketarako tailerra antolatu dute

Plentziako Udalak sormen-idazketarako tailerra antolatu du. Jarduer hori, jakinarazi dutenez, 14 urtetik gorako emakumeei zuzenduta egongo da. Hala, interesa dutenek maiatzaren 13ra arte izango dute izena emateko aukera, Goñi Portal kultur etxean. Iragarri dutenez, tailerra ekainean hasia aurreikusi dute, «izen-emateen arabera». Hala, izenak eman ostean, oraindino zehazteko dagoen egunean hasiko dira eskolak; oster, zehaztu dute zein izango den ordutegia: 18:00etatik 20:00etara. ◀

info+: www.plentzia.eus

Zezensuzkoa dantzatzeko, izena eman daiteke

Euskal Herriko jaietan ohikoak diren zezensuzkoak erroteko presakuntza-ikastaroan izena emateko aukera hilaren 19ra arte dagoela akordatu ekarri du Plentziako Udalak. Horretarako mezu bat bidali beharra dago zezensuzkoa@euskadi.eus helbide elektronikora, beharrezkoak diren fitxak eta datuak azalduta. Ikastaroa euskaraz eta gaztelaniaz izango da, maiatzaren 26an Arkauten (Araba). Eskola-ordutegia 15:00etatik 19:00etara arte izango dela jakinarazi dute. ◀

info+: www.plentzia.eus

harremanetarako: zezensuzkoa@euskadi.eus

Llamazaresek irabazi du Wedding Awards 2016 saria

Plentziako Patricia Llamazares argazkilariak irabazi du Wedding Awards 2016 saria, Argazki eta Bideo kategorian. Sariketa horrek Espainiar Estatuan ezkontzen munduan diharduten enpresen eta profesionalen lana balioan jartzen du. Hirugarren aldiz irabazi du sariketa hori plentziarrak: «Maitasun handiarekin egiten dut nire lana, hori da eta transmititu nahi du-

dana. Irudi perfektuak nahiz inperfektuak, ukitu handiegirik eta muntaketarik gabe. Niretzat, argazkia oroipen bat da, istorio bat, begirada bat, sentimendu bat». Gomendio gehien eta onenak dituzten enpresak saritzen ditu Bodas.net plataformak, sari horren antolatzaileak. Denera 33.000 enpresak eta profesionalak baino gehiagok parte hartu dute. ◀

Lemoiz

Euskarazko udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute

Lemoizko euskarazko udalekuetan izena emateko epea zabaldu dute Lemoizko Udalak eta Uribe Kostako Euskara Zerbitzuak. Hala, interesdunek maiatzaren 20ra arte izena eman ahal izango dute; Lemoizko kultur etxean, edo euskeraz@uribekosta.org helbide elektronikora izen-emate orria behar bezala beteta bidalita. Lemoizko euskarazko udalekuak ekainaren 27tik uztailearen 15era bitartean izango dira, eta talde bitan banatuta egongo dira 3 eta 5 urte artekoak, eta 6 eta 12 urte artekoak. Guztira, 30 leku egongo dira, adin-tarte bien artean banatuta. Antolatzaileek jakinarazi

dutenez, aurtan, neska-mutilek irteerak ere egingo dituzte. Lehenengo astean Oma basora joango dira, bertako zuhaitz margotuak ikustera. Bigarren astean, berriz, Pobal burdinolara hurbilduko dira, eta azkenik, hirugarrenean, Bilbora joango dira. Halaber, nagusiek Euskararen Etxea bisitatuko dute; txikiek, berriz, Olabeagako pirata-parkea.

Prezioei dagokionez, leku arruntak 60 euro balioko du; familia ugariak, berriz, 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta dutenek, 20 euro. ◀

info+: euskeraz@uribekosta.org

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

XURRUT
Pizza Bar · Musika zuzenean
946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurрут.com

prentsa · aldizkariak
ITXASGANE
Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

Irunbat
galp energia
Loiola Ander Deuna, 74
48500 SOTELO
946 764 626
www.irunbat.net
MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

Gorliz

Euskaraz berba egiteko

Hilaren 19an, eguenean, lehenengo Berbodromoa egingo dute Gorlizen eta Plentzian.

Gorliz eta Plentziako Euskara Agenda bateratuaren logoa aurkeztu ondoren, martxan da egitasmoaren hurrengo ekitaldia, maiatzaren 19an, eguenean: I. Berbodromoa. Ekimen hori Gorlizko Udalak, Plentziako Udalak eta Uribe Kostako AEK-k antolatu dute, eta goizez eta arrastiz izango da. Hala, goizean Plentziako herritarrek parte hartuko dute, Ontziola plazan, 11:00etatik 12:30ak arte. Arrastian, oster, gorliztarren txanda izango da. Hitzordua 18:00etatik 19:30ak arte ipini dute Iberre plazan. Berbodromoan bertan, hainbat berbabide egingo dira, ber-



Goizean Plentziako Ontziola plazan; arrastian, Gorlizko Iberre plazan. Irudian, Getxoko Berbodromoa. EGIZU

taratutakoan artean euskaraz berba egin ahal izateko eta euskararen munduan trebatzeko. Azaldu dutenez, herritarrek, institutuko ikasleek, euskaltegiko ikasleek, gazteek, helduek... edozeinek parte hartzeko aukera izan-

go du. Hala, bertaratutakoak taldeka banatuta, hiru gairen inguruan euskaraz hitz egingo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, alde zuretik izena eman daiteke. ◀

izen-ematea: euskeraz@uribekosta.org

Ibilaldira joateko autobusa, Gorlizen eta Plentzian

Berriro ere, maiatzaren azkenengo domekan antolatuko dute Ibilaldia, Bizkaiko ikastolen jaialdia. Hala, maiatzaren 29an egingo dute Bizkaiko ikastolen ospakizuna, *Dagigun!* goiburuagaz. Aurten Durangoko Kurutzia eta Ibaizabal ikastolek hartu dute Ibilaldia 2016 antolatzeko ardura. Hala, Durangora joan ahal izateko, Gorlizko eta Plentziako udalek autobusa antolatu dute, eskualdeko euskaltzaleak bertaratzeko asmoz. Busean joan gura dutenek maiatzaren 24ra arte izango dute izena emateko aukera, Gorlizko zein Plentziako kultur etxeetan. Autobusa 09:00etan irtengo da Gorliztik (Euskadiko Kutxa parean); Plentziakoek, oster, 09:15ean hartuko dute, Charter parean. 1978an egin zen lehenengo Ibilaldia Uribe Kostan, eta 1980tik aurrera 100.000 lagun baino gehiago bazten dituen jaialdia urteroko hitzordu bihurtu da. ◀

info+: www.gorliz.eu eta www.plentzia.eus

Ortu ekologikoen erabilera sustatzeko diru-laguntzak

Gorlizko Udalak bere webgunean jakinarazi duenez, ortu ekologikoak errentan dituzten eta udalerrian erroldatuta dauden auzotarren artean diru-laguntzak banatuko ditu, aurtoren ere bai. Laguntza horiek jaso gura dituztenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte: langabezian egotea; jubilatuta edo aktibo ez egotea, eta 55 urtetik gorakoa izatea; elbarria izatea;

edo lan-merkatuan inolako aukerarik ez duen gaztea izatea. Ekimen eta diru-laguntza horiekaz, Udalak ortu ekologikoak bultzatu gura ditu. Horren albotik, 2016ko deialdirako ezarritako oinarri erregulatzailen arabera (Ik. Udalaren webgunea) banatuko dituzte laguntza horiek, udal arduradunek zehaztu dutenez. ◀

info+: www.gorliz.eu

Gin-tonic perfektua egiten ikasteko tailerra antolatu dute

Barikuan, hilaren 13an, gin-tonic konbinatua egiten ikasteko ikastaroa egingo dute Begoña jatetxean, 20:00etatik aurrera. Horretan, bosna tonika eta gin dastatzeko aukera izango dute, gin-tonic perfektua lortzen ikasi ahal izateko. Tailer horren prezioa 25 eurokoa izango da; Gorliz, Plentzia eta Lemoizen erroldatutakoentzat, oster, 22,5 euro. ◀



info+: www.gorliz.eu

Uribe Kosta

Gazteak laneratzen laguntzeko programa

Leoan eta Erandion aurretik egin duten legez, Uribe Kostako Mankomunitateko herrietan ere zabalduta dute 20 eta 35 urte arteko gazteei begirako Hazilan laneratze programan izena emateko epea. Uribe Kostako Behargintzak ipini du martxan proiektua, Garapen garapen-agentzien euskal elkarteagaz batera. Proiektuaren helburu nagusia da gazteei zuzendutako 5.000 lanpostu sortzea Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, 2016 eta 2021 bitartean. Lanpostu horietatik %55 emakumei egingo dira zuzendu-

ta. Hazilan programaren atal horretan izena eman ahal izango dute honako baldintzak betetzen dituzten 20 eta 35 urte bitarteko lanbako gazteak: kualifikatuta egotea, hau da, unibertsitateko titulazioa edo Lanbide Heziketako goi-mailako zikloren bat edukitzea; eta Uribe Kostako Mankomunitateko zazpi udalerrietakoren batean erroldatuta egotea. Enpresetan praktikak egitea jasoko duen proiektuan parte hartu gura duten pertsonen izena eman dezakete daborduko Hazilaren webgunean. ◀

«Giza eskubideen aldeko trena» zapatuan, eskualdean

Giza eskubideen aldeko trena martxan jarri du Sare mugimendua. Hala, hurrengo geralekua Uribe Kosta izango du ekimen horrek, hilaren 14an, zapatuan. Hilabete luze daroa Sare kanpainagaz, eta horren helburua da «herri honetako ahalik eta sektore eta pertsona gehien mobilizatzea euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen alde jarduteko». Hala, Plentzian abiatuko da tren-sarea, 12:30ean. Ordu horretan kotxe-karabanan joango dira Sopelaraino, eta bertan metroa hartuta, Algortaraino helduko dira 13:00etan. Algotaraino helduko dira 13:00etan; Erandiotik ere irtengo dira, 12:39an. ◀

Amnistiaren aldeko kotxe-karabana deitu dute zapaturako

Uribe Kostako Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimendua mobilizazioa deitu du maiatzaren 14rako, zapatuan. Egun horretan, amnistiaren aldeko kotxe-karabana egingo dute, Gorliztik abiatuta. Horretarako hitzordua goizeko 10:00etan ipini dute, Gorlizko Astondo puntan, «Herri zaratatsua ez da inoiz hilko» goiburuagaz; antolatzaileek ez dute zehaztu ibilbidea nondik nora izango den. Hala ere, jakinarazi dutenez, eskualdeko manifestazioa egingo dute hilaren 21ean, zapatuan, Algortan. Hitzordua arrastian jarri dute, 18:30ean, Telletxen. ◀



Itziar Morenoka eta Oihana Garmendia kartzelan egindako lanak egongo dira ikusgai. © ERAIKIZ KOLEKTIBOA

Egitaraua

Maiatzaren 16tik 31ra

Mujeres en los márgenes erakusketa, Algortako kultur etxean (Villamonte, A8).

Ordutegia:

Astelehenetik barikura, 11:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 21:30era. Eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Sarrera, doan.

Parte-hartzaileak:

- Itziar Moreno Martinez (Bilbo, 1982). Bere egonezina azaltzen du, emakumeek testuinguru ezberdinetan pairatzen duten berdintasun-ezaren aurrean. 17 artelan aurkezten ditu. Fresneseko (Frantzia) espetxean dago preso gaur egun.

- Oihana Garmendia Marin (Santurtzi, 1976). 6 artelan aurkezten ditu; preso zegoela egin zituen. Emakume eta gizonen aurpegien bitartez, nortasun ezberdinak definitzen dituzten emozioak azaltzen ditu.

Maiatzak 18, eguaztena

19:00 Mahai-ingurua, Villamonten: Plataforma Tirante, Sokole kolektiboa eta Oihana Garmendia.

Emakume artistak agerian

Artea dela medio egitasmoaren barruan, Eraikiz kolektiboak osatutako *Mujeres en los márgenes* erakusketa egongo da ikusgai Villamonteko kultur etxean, Algortan.

Maiatzaren 16tik 31ra *Mujeres en los márgenes* erakusketa egongo da ikusgai Villamonteko kultur etxean, Algortan. Besteak beste, «arrazoi desberdinen ondorioz jendartearen bazterretan dauden emakumeak ikus-taraztea» dauka helburu Eraikiz kolektiboak antolatutako esposizioak. «Artea parte-hartze inklusiboko eremuak eraikitzeko bitarteko beharrezkoa dela

nabarmendu gura dugu. Eta arte-sorkuntzara aukera-berdintasunagaz hel-tzen lagundu ere bai gure komunitatea osatzen duten pertsona guztiei», azaldu dutenez. Villamonten, Itziar Morenoka (gaur egun, preso) eta Oihana Garmendia (preso ohia) egindako 25 margolan erakutsiko dituzte; kartzelaldian margotu zituen Garmendia koadroak. Eraikiz kolektiboko kideek diotenez, «artearen aurkitu dute euren

ahalduntze pertsonalerako eta soziale-rako tresna bat» emakumeok. Erakusketak dirauen bitartean, mahai-inguru bat egingo da. «Arteak adierazpen, ahalduntze eta gizarte-ekintzarako tresna legez daukan garrantziari buruz hausnartzea du helburu», adierazi dutenez. Plataforma Tirantek, Sokole kolektiboak eta Garmendia berak parte hartuko dute berbaldian.

Getxoartek, beka bi

Getxoarte azokak aurtengo eskaintza indartuko du *Perimetroak* eta *Sinergika* izeneko beken bitartez; horiek arte-praktika garaikideak sustatzea dute

helburu nagusia; aldi berean, artearen mundua beste arlo batzuetara zabaltu gura dute. Besteak beste, arte, kirol eta generoaren inguruko ikerlanak sustatu gura dituzte *Perimetroak* bekaren bitartez; *Sinergika* bekari dagokionez, artisten lana hedatzea da horren asmo nagusia. Hala, Getxoartek transbertsalitatearen alde egin gura izan du, eta bere eskaintza ez da bakarrik aretoaren karpas mugatuko. Beka horietan izena emateko epea maiatzaren 14an itxiko da; interesdunek beken gaine-ko informazioa dute Algortako kultur etxean zein www.getxo.eus/getxoarte web-loturan. ◀

Jolas interaktibo berria kaleratu du Urtxintxak

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak eta Emaisia emakume-taldeak mugikorretarako aplikazio berri bat plazaratu dute elkarlanean; *Euskal Herriko damak* izena dauka jolas interaktiboak. «Gure jendartearen gizonezkoei soilik arreta eskainita, emakumeak oharkabea pasatzen zaizkigu. Jolasean, errealtate hori irauli, eta Euskal Herriko emakume esanguratsu batzuk eta euren lorpen eta bizipenak ezagutuz, dama-partida ahaztezin batzuk jokatuko ditugu», azaldu dutenez. Doan eskura daiteke Google Play-ren bidez. Bestalde, Bizkaiko Urtxintxa Eskolak 30 urte beteko ditu. «Sortu zenetik eral-

datzen joan den proiektua da gurea, aurka-apurka balio ezberdinak jorratzen hasi ginen, eta proiektu berriak marrazten eta kolore berriak nahasten jarraituko dugu garai aldakor haue-tan ere», adierazi dute Urtxintxakoek. Urteurrena behar bezala ospatzeko, aste-akabu osoko egitaraua antolatu dute, maiatzaren 13tik 15era bitartean, Arabako Tertanga herrian. Bizkaiko Urtxintxa Eskola, astialdiko trebakuntzarako eta suspertze soziokulturale-rako erakundea da. Jendartearen eragile aktibo eta eraginkorrak izatera bidean lanean dihardu 1986an sortu zenetik. ◀

info+: www.urtxintxaeskola.eus

Iñigo Astizek berbaldia emango du Altzagan

Bariku honetan, maiatzak 13, Iñigo Astiz (Iruñea, 1985) *Berria* egunkariko kazetariak berbaldia emango du, *Eta euskal kultura piztu zen* goiburupean. Ekitaldia 19:00etan izango da, Gautxoriak elkar-teko egoitzan (San Jeronimo, 22); sarrera, doan.

Kazetaria eta iritzigilea izateaz gainera, idazlea eta itzultzailea ere bada Astiz. Orain dela lau urte *Baita hondakinak ere* (Susa, 2012) poema-liburua plazaratu zuen. Egileak dioenez, «poemetan gehien errepikatzen den asmoa ideia abstraktuak gorputz konkretuetara eramatea da. Ideiek xehe-



Idazlea ere bada Astiz. GOIENA

tasun bilakatzeko duten era bihurria interesatzen zait». Bestalde, 2013aren amaieran, Silvia Plath (Boston, 1932 - Londres, 1963) poeta estatubatuarra-ren *Ariel* euskaratu zuen; bere hainbat poemak ere sartu zituen. ◀



URIBE KOSTA

Komunikatuz eraldatu jardunaldiak, aurrera

Mugarik Gabe Gobernuaz Kanpoko Erakundeak *Komunikatuz eraldatu* - *herriak euren komunikazioaren jabe* izeneko jardunaldiak antolatu ditu Uribe Kostan, HIRUKA komunika-zio-taldeagaz elkarlanean. Bigarren saioa eguen honetan (hilak 12) izango da, eta, *Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komuni-kabideak* goiburuko mahai-ingurua

egongo da, Algortako Azebarri kultur-gunean; saioa euskaraz eta gaztela-niaz izango da, 19:30etik aurrera. Ber-baldian horretan parte hartuko dute honako hauek: Carlos Aznarez (bideo bitartez) kazetari argentinarra, *Resu-men Latinoamericano* komunikabide-ko zuzendaria; Fakun Aznarez Euskal Herrian finkatutako kazetari argenti-narra eta *Resumen Latinoamericano*

hedabideko kidea; Arantza Santeste-ban historialaria, komunikazio eta ge-nero kontuetan aditua, *Komunikazio parekiderantz kazetarietza*ko eskuli-burua liburuaren egilea; eta HIRUKA-ko kideak. Amaitzeko, hilaren 19an eta 26an dokumental-emanaldiak eta berbaldiak egongo dira, 19:30ean, Al-gortako kultur etxean; horietan, gon-bidatu indigenek parte hartuko dute. ◀

Sanisidroak Getxon



2016/05/12

17:30 Txupinazoa, Geroa Ikastolako 6. mailako ikasleakaz, Malakaten.
18:00 Txokolatada, Malakaten.
18:00 Orekan Slackline Bizi, Malakaten.
18:00 Buruhandiak eta hankaluzeak, Agurra dantzari-taldeagaz, Malakaten.
21:00 Kontzertuak: Outlaw Rockers, Jarrera, Caena de WC eta Ou Mama musika-taldeakaz, aparkalekuan.

2016/05/13

17:00 Graffitiak, Bentan.
17:30 Ume eta helduentzako jolasak eta askaria, euskaraz, Sendiren eskutik, Malakaten; Parkean Olgetan ekimenaren barruan.
19:00 Umeei begirako erromeria, Malakaten.
19:30 Mus-txapelketa, alkartetxean.
23:00 Kontzertuak: Nebula SelektaH, Solte (disko berriaren aurkezpena) eta Kolpatu (Kortatuturi tributua), taldeakaz, aparkalekuan.

2016/05/14

11:00 Puzgarriak, Malakaten.
11:00 Ginkana, eta taloa egiteko tailerra, Argia fundazioaren ekimenez, Malakaten.

11:30 Herri-kirolen erakustaldia, probalekuan.
12:00 Fanfarrea, Malakatetik abiatuta.
14:30 Herri-bazkaria, auzo-elkarteak antolatuta, aparkalekuan.
19:00 Poteo girotua, aparkalekutik abiatuta.
21:00 Ixas Argia dantza-taldearen *Herrien jaialdia*, frontoian.
23:00 Kontzertua, Gora Herria musika-taldeagaz, aparkalekuan.

2016/05/15

10:30 XXV Isidro Deuna Eskupilota Txapelketa, gizonetzkoen finalak, frontoian. Etorkizun oparoko jokalariek eta elite-mailakoek jokatuko dituzte finalak.
11:00 Herri-azoka, parkingean.
11:30 Txorimaloak egiteko tailerra umeentzat eta helduentzat, Sendigaz. Parte hartu gura dutenek aurretik izena eman beharko dute: 685 732 963. Gehienez, 15 bikote onartuko dituzte.
17:30 Idi-probak, kooperatibak antolatuta, probalekuan.
18:30 Show Getxo C.P. patinaie artistikoaren jaialdia, frontoian.
18:30 Dantza-plaza, Dangiliske musika-taldeagaz, aparkalekuan.

2016/05/12 - 17:30-19:30

Dinosauroak egiteko tailerra Astillero plaza | Plentzia

Hilaren 13an, 14an eta 15ean egongo dira hurrenez hurren Urdulizko Antsonetxoa plazan (17:30-19:30), Gorlizko Ibarreta plazan (12:00-14:00) eta Sopolako Jauregiar plazan (12:00-14:00). Euskaraz. Sarreara, doan.

2016/05/12 - 18:00

Magic txirula ikuskizuna

Astrabuduko liburutegia | Erandio
Ipuinak ingelesez kontatuko dituzte. 6 urtetik gorako umeentzat. Sarreara, doan.

2016/05/12 - 18:00

Suite francesa pelikula

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Genero ikuspegiko zinema. Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

2016/05/14 - 17:00

El capitan diente de sable umeentzako filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarreara: 2 euro.

2016/05/14 - 17:30etik aurrera

Kurkudi eta Erika Libre Eguna

Aldapako anfiteatroa | Leioa

Erika Bilbaori elkartasuna adieraziko diote, maiatzaren 17an epaiketa hasiko delako. Besteak beste, umeentzako tailerrak (17:30), kalejira (18:00), babes-ekitaldia (19:30) eta kontzertuak (21:00) egongo dira.

2016/05/14 - 18:30

Txokolatada

Udaletxeko plaza | Sopela
XXXI. ibilaldi Herrikoia-ren egitarauaren barruan; domekan hasiko da ibilaldia. Doan.

Iñigo Astiz kazetaria berbetan, Altzagan

Bariku honetan, maiatzak 13, Iñigo As-tiz *Berria* egunkariko kazetariak berbal-dia emango du, *Eta euskal kultura piz-tu zen* goiburupean. Ekitaldia 19:00etan izango da, Gautxoriak elkarteko egoi-tzan (San Jeronimo, 22); sarrera, doan. ◀

Oker filma ikusgai, kultur etxean

Zineuskadik sustatzen duen Zinema Eus-karaz ekimenari esker, zapatuan, maia-tzak 14, *Oddball* film australiarra euska-raz ikusteko aukera egongo da kultur etxean. Emanaldia 18:00etan izango da; sarrera 3,50 euroan egongo da. ◀

Kapitalaren gaineko pelikula, Kurtzion

Gizarte Zinemaren zikloaren barruan, zapatuan, maiatzak 14, *Le Capital* filma egongo da ikusgai, 20:00etan, Kurtzio kultur etxean. Filma frantsesez eta in-gelesez eskainiko dute, euskarazko az-pitituluakaz; sarrera, doan. ◀

Sam & Jam pop-taldea Glass kafetegia (Areeta) | Getxo

Getxon Zuzenean ekimenaren barruan. Doan.

2016/05/13 - 2016/05/15 - egun osoan zehar

Erdi Aroko Azoka

Moreaga parkea | Berango
Kalejirak, musika, txotxongiloak eta ipuin-kontariak, umeentzako jolasak, tailerrak, antzerkia, antzinako armen erakusketa, eta salmenta-postuak egongo dira. Sarrera, doan.

2016/05/13 - 17:30

Parkean Olgetan ekimena

Malakate parkea (Andra Mari) | Getxo
Sendi proiektuak antolatuta. Gurasoen parte-hartzea bultzatuko dute. Euskaraz. Parte-hartzea, libre.

2016/05/13 - 20:00

Errefuxiatuen aldeko kontzentrazioa

Xake plaza (Areeta) | Getxo
Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak antolatuta. *SOS erre/fuxiatuak. No al acuerdo UE-Turquia* goiburupean.

2016/05/13 - 21:00

Dheepan pelikula

Areetako musika-eskola | Getxo
Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak antolatuta. *SOS erre/fuxiatuak. No al acuerdo UE-Turquia* goiburupean. Sarrera, doan.

2016/05/14 - 10:00etatik aurrera

Hamaikasax Eguna

Musika-eskola | Leioa
Besteak beste, Sélmer eta Vandoren etxeetako hainbat saxofoi eta materialen aurkezpena (11:30), kaleko kontzertuak (12:30), herri-bazkaria (14:30), eta musika-eskola denen amaiera-kontzertua (16:30) egingo dute.

2016/05/14 - 10:00

Amnistiaren aldeko kotxe-karabana

Astondo | Gortiz
Uribe Kostako Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak antolatuta. Eskualde osoan zehar.

2016/05/14 - 12:30

Presoen sakabanaketaren kontrako mobilizazioa

Telletxe plaza (Algorta) | Getxo
Sarek antolatuta. *Badator Uribe Kostako trenal* goiburupean. Informazio gehiago: sare.eus

2016/05/14 - 19:00

La barca sin pescador helduentzako antzezlan

Berango Antzokia | Berango
Antzerki Amateurraren V. Jaialdiaren barruan. Derioko Sutondoan taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/05/14 - 20:00

Ocho apellidos catalanes umorezko pelikula

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/05/14 - 20:15

Secretos de una obsesion filma Kultur etxea | Urduliz

12 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/05/15 - 09:00

XXXI. Ibilaldi Herrikoia

Akilino Arriola, 1 | Sopela
Helduak 09:00etan itengo dira, eta 11 urte artekoak, 10:30ean. Izen-ematea egunean bertan egingo da, irteera baino lehenago. Parte-hartzaile denek jasoko dute oparia.

2016/05/15 - 10:00

IX. Gortizko Badia Triatloia

Hondartza | Gortiz
Informazio gehiago: www.triatloia.org

2016/05/15 - 18:00

Asterix. Jainkoen egoitza animazio-pelikula

Berango Antzokia | Berango
Denontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/05/15 - 19:00

Un sorbito de amistad emakumeen antzezlan

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Xankore taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/05/17 - 18:00

A cambio de nada pelikula

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforumaren barruan. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/05/17 - 20:00

Erika Bilbaoren epaiketaren kontrako manifestazioa

Boulevard | Leioa
«Tortura salatu, eta eskubide zibil eta politikoak» aldarrikatuko dituzte.

Bertsoz bertso, bero-bero

Josu Landetak irabazi zuen Gueñesko saioa; Arondo laugarren lotu zen; Orozkokoan ez ziren lar fin ibili Larrazabal eta Igeregi. Zapatu honetan lehiatuko dira Arrigorriagan Galder Bilbao eta Unai Mendiburu.

Pasa den zapatuan, Gueñesen jokutako BBT Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko Fasearen kanporaketa irabazi zuen Josu Landeta Egurrola getxoztarrak, 168 puntugaz; eta laugarren postua (150,5 puntu) lortu zuen Peio Arondo Barandiaran algortarrak. Domekan, Orozkon egin zen osteko kanporaketa; horretan, Ekaitz Larrazabal Gutierrez Katxo algortarra (145,50 puntu) eta Joanes Igeregi Santamaria sopoloztarra (131,00 puntu) atzenurren eta atzeneko postuetan lotu ziren, hurrenez hurren. Garikoitz Sarriugarte Onaindia zaldibartarra lehenengoa izan zen Orozkoko bertso-lehian. Datorren zapatuan, hilak 14, Arrigorriagan egingo da azken-aurreko kanporaketa. Han lehiatuko dira Galder Bilbao Martinez Txapi leioaztarra eta Unai Mendiburu Valor algortar gaztea, besteak beste. Lonbo aretoan izango da zita, arrastiko 05:30ean.

Bestalde, Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren finala nork jokatu duen ere erabaki zen iragan barikuan, Elorrioren. Hala, finalan, ALBE Algortako Bertsolari Eskolak ordezkari bi izango ditu: Aritz Landeta Terceño (Deustuko saioaren irabazlea) eta Unai Mendiburu Valor (Bermeoko saioaren irabazlea). Gero, herrialde bakoitzeko bertsolari bi (txa-

pelduna eta txapeldunordea) Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketan lehiatuko dira, ekainaren 4an, Ereñotzun (Hernaniko auzo-udalean); bertan izango da norgehiagoka, Txirrita hil zeneko 80. urteurrenagaz lotuta.

Hitzordu bikoitza, Getxon

Ostera, hori baino lehenago, norgehiagoka garrantzitsu eta eder bigaz gozatzeko aukera egongo da Getxoko Fadura kiroldegian. Izan ere, BBTrren Udabarriko Fasearen azkenengo saioa eta Bizkaiko Eskolartekoaren finala, biak ala biak, egun eta herri berean izango dira: Getxon, maiatzaren 22an. Aukera aprobetxatuz, Bizkaiko Bertsozale Elkartek egun osoko jaia prestatu du egun horretarako; Bizkaiko bertso-eskolen Eguna ere orduan egingo dute. Goizean hasita, 10:00etan bertso idatzien finala hasiko da. 11:30ean bat-bateko Bizkaiko Eskolartekoaren finala jokatu duen zortzi bertsolarik, artean, aipatu lege, A. Landetak eta U. Mendiburuk. Txapelketa horretako txapelduna eta txapeldunordea, beraz, Bizkaiko ordezkariak izango dira Euskal Herriko Eskolartekoan. Eta txapel horiek nortzuek jantziko dituzten 13:30ean jakingo da, orduantxe izango da eta sari-banaketa. Ondoren, bazkaria: txartelak eta aurtengo goiburua



Galder Bilbao Txapi eta Unai Mendiburu lehiatuko dira Arrigorriagan. © BERTSOZALE ELKARTEA

daroaten *Oinak Buruan* kamisetak salgai daude bertsozaleak.eus atarian (azken eguna maiatzaren 12a izango da). Bazkalostean, bertso-eskolen tartetxoa izango da. Arrastiko 05:30ean jokatu da BBTrren Udabarriko Faseko atzenengo kanporaketa, horretan aurrez aurre izango ditu Inazio Vidal

Gurrutxaga leioaztarrek, Aitor Ruiz Urizar, Igor Menika Bengoetxea, Joseba Barandiaran Andueza, Julen Erezuma Arzanegi eta Malen Amenabar Larrañaga. Egunean bertan erosi ahal izango dira sarrerak 3 euroan; bazkideek 2 euroan izan dituzte, eta 16 urte artekoek, doan. ◀

Fredi Paia ez da Bizkaikora aurkeztuko

Aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketara ez dela aurkeztuko ezagutarazi zuen Fredi Paia Ruizek, pasa den astean *Aizu!* aldizkariak argitaratutako elkarrizketan. Bizkaiko bertso-lehiaketaren aurreko txapela buruan duela, azkenengo hilabeteetan hausnarketa sakona egin duela adierazi du algortarrak, eta aurtengoan ez lehiatzeko erabakia hartu duela azkenean; horren gaineko arrazoiak ere azaldu ditu. ◀

info+: hiruka.eus



© NEREA FALAGAN

Book Trailer

Lehiaketaren sariak banatu ditu Kalabazanek. Lehenengo saria eta Publikoarena *Arotzaren eskuak* (E. Villa, S. Esturo eta S. de Toro) lanak jaso du; bigarrena, *Prime Time*-k (U. Sainz, E. Aguilar, M. Iribar); hirugarrena, *Ondarroako piratak*-ek (P. Irastorza, N. Landeta, A. Landeta).

Ayer, bigarren lana, aurkeztu du Gonzalo Mira astrabuduarrek

Apiril amaieran aurkeztu zuen herrian, Josu Murueta kultur etxean, Gonzalo Mira idazle astrabuduarrek bere bigarren eleberria: *Ayer*. Denbora luzez poemak eta narrazio laburrak idatzi ostean, orain dela hiru bat urte, 2013ko amaieran, argitaratu zuen erandioztarrak lehenengo nobela, *Noviembre*. Bigarren lan honetaz adierazi dutenez, «kontakizun aztoragarri, estugarri eta limurtzaile batean» murgilduko gaitu idazleak. Astrabudua eta Madril artean gertatzen da *Ayer* nobelaren trama, «galderaz beteriko istorio gorabeheratsuetan zehar» eramango gaituela iragarri dute, «batzuetan mingarri izatera irits daitekeen errealismoaz jantzita». ◀

Eta Leioako Pop Rock Lehiaketaren finalean izango dira...

Aterpe Leioa Gazteguneak ezagutza eman ditu Leioako Pop Rock Lehiaketaren finalistak. XVI. ekitaldian, guztira, 53 taldek parte hartu dute: 37 taldek, Pop Rock atalean, eta 16 taldek, Metal atalean. Horietatik 3 leioaztarrek dira, erandioztar bat, eta beste 31, Euskal Herrikoak. Leioako Udala saria herriko Jarrera taldearentzat izan da, eta «Euskarazko abestirik onena» saria irabazi du Lumi taldearen (Lapurdi) «Haritza» kantak. Ostera, Metal atalean honako talde hauek izendatu zituzte finalerako: Black Ocean Witness (Erandio) eta Gabezia (Donostia); Pop Rock atalekoan, hauek: Sonograma (Madril) eta Ghost Number & His Topsy Gypsies (Donostia). ◀



Zientzia-pilulak

**EDUARDO
SAN ANDRES ARANA**
Matematika irakaslea

Hona hemen bidaia zoragarri baten kondaira

Denak zihoazen espazio-ontzi berebean. Haien memorian ez zegoen gordeta bidaiaren abiapuntua, eta noiztik zebiltzan bidaiatzen ere ez. Batzuek, ameslariek, betidanik egon zirela zioten, gehienek ez zioten bere buruari galdera hori egiten. Bidaide eta tripulazio ugari zegoen ontzian, eta batzuetan elkarbizitza ez zen erreza, argudioak eta borrokak ere sortzen ziren sarritan, baina, nolabait, euren arimaren sakonean, denek zekiten elkarlana ezinbestekoa zela bidaia portu onera eramateko. Egia esan, gauzak ez zeuden txarto antolatuta, elikagaiak ekoizteko gune bereziak zeuzkaten, toki aproposak hildakoen gorpuak gordetzeko... eta horri esker bidaiak jarraitzen zuen.

Baina une arriskutsuak ere egon ziren tarteka, arazoak hain larri bilakatu ziren noizbait, ezen bidaiaren patua kolokan geratu zen batzuetan, ontziaren motorrak matxuratzeko arriskuan ere egon zirelarik. Ezbeharrak saihestea ezinezkoa zirudienean, ordea, azken momentuan tripulazioko mekanikariek arazoa konpontzen lortu zuten. Jendeak oraindik gogoratzen zuen hotzikara batekin azken gertaera hori. Benetan gertu egon zen istripua...

Eta ume bat. Ume bat leihoetik begira. Begirada espazio zabalean. Baita ametsak ere. Umea ez da konformatzen, eta eskue-tan daraman kandela bazter ilunetara gerturatzen du behin eta berriro, mamuak eta beldurrak uxatzeko edo. Espazio-ontziak bere bidaia jarraitzen duen bitartean, bere iskanbilak, kome-riak, borrokak, pozak, tristurak eta istorioak haien antzezlanak jokatuz, itxaropen apalak, bere eskuan Zientziari eutsiz, iluminatzen gaitu.

Espazio-ontziaren izena Lurra zen, eta helmuga, ezezaguna. Agian, izarretara. Etxera. ◀



Arantza Santesteban Algortan izango da eguenean, hilaren 12an, Algortako Azebarri kulturgunean, 19:30ean. © JOSU SANTESTEBAN

«Hedabideak informazio ekoizleak ere badira»

Arantza Santesteban (Iruñea, 1979) adituak komunikazioa parekidetasunez lantzeko eskuliburua aurkeztu du.

IKER RINCON MORENO ▶

Historian lizentziaduna eta komunikazioan aditua da Santesteban. Eguenean, hilaren 12an, Algortan izango da, *Komunikatuz eraldatu* jardunaldi-tako bigarren saioan; komunikazioa parekidetasunez lantzeko kazetari-entzako eskuliburuaz ere jardungo du.

Komunikazioa parekiderantz, kazetari-entzako eskuliburua aurkeztu zenuen iaz. Zeri erantzuten dio?

Iazko Durangoko Azokan aurkeztu genuen eskuliburua. Arrasateko Emakume Txokoarekin eta Goierna Komunikazio Taldearekin elkarlanean egindako lan bat da. Bertako hainbat pertsonak beharra ikusten zuten herri-mailako komunikabide nagusienetan genero-ikuspegia egoki lantzeko. Horrela, Goienako kazetariekin lanean hasi ginen, beharrak eta gabeziak detektatzeko, eta, ikastaro batzuen ondoren, liburua egiteko ideia ateratu zen.

Zer aurkitu daiteke lan horretan?

Komunikazioa parekidetasunez lantzeko kazetari-entzako erabilgarriak izan nahi duten gomendioak biltzen dira.

Esan beharra dago oinarritzko gomendioak direla; kasu batzuetan, egunero-ko praktikan adibide konplexuak agertzen zaizkie kazetariei, eta horiek neurri landuagoak behar izaten dituzte.

Gomendio teorikoak eta praktikoak aurkeztu dituzu liburuan. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Eskuliburuak badu atal teoriko bat, eta beste bat, praktikari bideratuta. Zaila egiten da batzuk beste batzuen gainetik nabarmentzea; guztiek dute elkarren arteko lotura. Atal teorikoan be-

“Kazetaritza-munduan parekidetasunarekin konpromisoa har daitekeela uste dut”

girada androzentrikoak sortzen dituen ajeak lantzen dira, eta atal praktikoan, horiek gainditu ahal izateko gomendio praktikoak. Azken horiek atal ezberdinetan daude antolatuta: indarkeria sexistaren trataera, emakumeen agerikotasuna, estereotipoen gainditzea, kirol informazioaren trataera, irudia... Guztiak dira inportanteak, nire ustez.

Zer egin beharko genuke kazetariok parekidetasuna bermatzeko?

Kazetariak ardura handia dute, azken batean hedabideak ez baitira soilik informazio-emaileak; informazio-ekoiz-

leak ere badira. Lana arduraz hartzea eta kalitatezko kazetaritza egitea, gizar-tearen aniztasuna eta konplexutasuna islatzea beharrezkoa da. Gaurko edozein aldizkari masibo hartuko bagenu eta agertzen den informazio eta irudien kopuruaren arabera aztertuko bagenu, emango luke gizon zuriek gehiengo osatzen dutela gure inguruan. Irudi desagoki hori ematen eta ekoizten duen kazetaritza ez da kalitatezkoa.

Zer garrantzi ematen diote hedabideek parekidetasuna lantzeari?

Zorionez, gero eta handiagoa. Euskarazko hedabideen artean esango nuke gero eta handiagoa dela, eta ekimen asko ari dira antolatzen azkenaldion. Aipatzekoa da, esaterako, *Berriak* duen Estilo Liburua, ziur aski, euskaraz egin den lan sakon eta osatuena.

«Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komunikabideak» mahai-inguruan parte hartuko duzu eguenean. Zeintzuk dira herri-komunikabideen betebeharrak?

Herri-komunikabideen zeregin nagusia gertuko den horren berri ematea da, nire ustez. Eraikitzen den begirada tokian tokikoa izateaz gain, eraldaketaren eta justiziaren balioekin lotzea ezinbestekoa da, nire ustez. Irudiz eta informazioz inguratuta bizi garen honetan, kolonizatu gabeko ikuspuntuak lan ditzakete herri-komunikabideek, eta horrek aukera handiak eskaintzen ditu eraldaketa sozialerako. ◀

«Amaitu barik dagoen gatazka baten gerra-trofeoak gara»

Erika Bilbao Barcena eta beste zortzi euskal herritar epaitzen hasiko dira martitzenean, maiatzak 17, Espainiako Auzitegi Nazionalean; Ekin erakundeko kide izatea egotzita, bederatzi urteko espetxe-zigorra eskatu dute; Erandiokoa izan arren, bere ibilbide politikoa Leioan garatu du. Epaiketa ekainaren zra arte luzatzea aurreikusi dute.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zer irakurketa egiten duzu epaiketaz?

Sentsazioa daukat ezer baino gehiago gerra-trofeoak izan ginela 2010ean: ETak su-etena iragarri, eta egun batzuetara, atxilotu gintuzten, eta komunikabideetan, oihartzun handia eman zieten gure atxilotetei, atzerriko hedabideetan ere bai. Izugarri harritu ninduen etxetik atera nindutenean, eta neure burua kazetariz inguratuta ikusi nuenean. Ez nuke esan barik utzi nahi Leioako Kurkudi herriko taberna miatzera sartu zirela, eta langileen soldaten dirua eramane zutela; haiek ondo baino hobeto zekiten zertarako zen dirua.

Gainera, ETak iragarritako su-etenaren erantzuntzat jo zituen gure atxilotetak Espainiako Gobernuak berak. Sei urte beranduago, logika berberarean kokatzen da maiatzaren 17tik aurrera egingo diguten epaiketa; Euskal Herriari eta bake-prozesuari begira, jarrera berbera mantentzen segitzen dute Madrilen. Oraindik amaitu gabe dagoen gatazka baten gerra-trofeoak gara.

Behin baino gehiagotan salatu duzue tortura bidez zeuon burua erruduntzat jo eta sinatzea eragin zizuetela, eta horretan dagoela oinarrituta epaiketa. Oso modu basatian hartu gintuzten... Inkomunikaturik egon ginen bost egun horietan, nire bizitza osoan lehenengo aldiz, eta, zorionez azkenengoz, pertsona izango ez banintz bezala tratatu ninduten. Gizatasun izpirik ez duen kontua da; inongo logikarik kanpo dago. Egiten duzuna egiten duzula ere tra-

tu txarrek aurrera jarraitzen dute bost egunean. Gaur egun, oraindik, erabat itxi eta sendatu gabe jarraitzen dute orduko zauriek.

Aurreko batean esan zenuen zoriontasun-sentimenduaren antzekoa sentitu zenuela espetxera heldu zinenean.

Bost egun horiek bukatzeak zoriontasunez bete ninduen. Espetxera heldu nintzenean, lo egiten, atsedean hartzen, bakean utz ziezadaten... behar nuen; horixe eman zidan kartzelak lehenengo egunetan.

“**Nire bizitza osoan lehenengo aldiz, eta, zorionez azkenengoz, pertsona izango ez banintz bezala tratatu ninduten**”

Torturatu zintuzten horiek epaiketan deklaratzeko ikustea ere ez da erraza izango, ezta?

Abokatuei eskatu diegu dispensa eska dezaten, egun horietan aretoan egon behar ez izateko; baina ikusten ari gara ez digutela aukera hori emango. Eman zuteneko aurrekari bakarra dago; ez da aurreikusten berriro emango dutenik. Izan ere, zelanbaiteko aitortza bat dakar horrelako erabaki batek: «ez

bazen ezer gertatu, zelan sufrituko dute?» da euren logikaren parte den ideia; epaileak badaki dispensa emateak zama daukala atzean. Seguruenik, irentsi egin behar izango ditugu haien lekukotza-saioak.

Zentzurik dauka urte bi espetxeratu izanak, eta, oraindino ere, epaiketarako ia beste lau urte gehiago itxaron behar izanak?

Ez dauka inolako zentzurik, Espainiako Estatuak horrelakoetara ohituegi gauzkan arren. Teorian, ihes egiteko edo frogak ezkutatzeko arriskua dira behin-behineko espetxealdia agintzeko arrazoi nagusiak. Aurretik ere, guztiz frogatuta zegoen bizitza normala generamala; nik neuk hipoteka bat daukat. Zerbait ezkutatzeko arriskuari dagokionez, gu atxilotu ostean, ez zuten bestelako ikerketarik egin; ez zegoen lege-oinarririk, gu behin-behineko espetxealdian bi urtez edukitzeko.

Pertsona suntsitzeko nahiari ere lotu dakioke behin-behineko espetxealdi hori: bost egun inkomunikatuta pasarazi ostean, jakin badakite sortutako beldur eta ezinegon guztia barrura arte zelan sartu guri, eta kartzelara sartzeak bere pisua daukala pertsona hausteko.

Azken urte hauetan zure bizitza-proiektua egiteko aukera ukatu dizutela uste duzu?

Erabat ukatu didate. Ez daukat aukerarik erabakitze-ko hemendik eta urtebetara zer egin nahi dudana; ezin ditzaket egin epe erdi edo luzeko planik. Ez dakit zer



Mobilizazioak

Maiatzak 14, zapatua

Kurkudi eta Erika Libre Eguna

17:30 Umeentzako tailerrak, Aldapako anfiteatroan.

18:00 Musika lagundutako kalejira, Plaza Gorritik.

19:30 Babes-ekitaldia, Aldapako anfiteatroan.

21:00 Kontzertuak, Aldapako anfiteatroan.

Deitzailea: Leioa Libre plataforma.

Maiatzak 16, astelehena

11:00 Eskubide zibil eta politikoak guztiontzat. Epaiketa politikorik ez. *gak libre* goiburupean, kontzentrazioa, Boulevarden.

Deitzaileak: ELA, LAB, ESK eta Steilas.

Maiatzak 17, martitzena

20:00 Epaiketa politikorik ez. Erika libre. *gak libre* goiburupean, manifestazioa, Boulevardetik. Deitzailea: Leioa Libre plataforma.

Erika Bilbao Barcena eta beste zortzi euskal herritar 2010eko irailaren 14an atxilotu zituen Guardia Zibilak. Bost egun egin zituzten inkomunikatuta; torturak salatu zituzten. 2012ko uztailaren 25ean atera zen espetxetik Bilbao.

egingo dudana; baina, esate baterako, amatasunerako aukera erabat mugatuta daukat; 32 urterekin atxilotu ninduten, eta 37 dauzkat orain. Erabakirik ezin dugu hartu; ez daukagu inolako kontrolik gertatuko denaren inguruan.

Torturez gainera, epaiketan, eskubide zibil eta politikoen defentsa auzitan jartzen dela diozue.

Lehen aipatu bezala, oso argi daukagu jokaldi baten gerra-trofeoa garela; baina, batez ere, gure ekinbide politiko eta soziala zigortu nahi dute. Bere garaian, terrorismoaren aitzakiaren pean, hamaika bide zabaldu zituzten euskal herritarrek zigortzeko eta jendea aktibo politiko izateko aukera mugatzeko edo beldurra sartzeko; kate horretan beste katebegi bat baino ez gara gu. Oso argi daukate erakundeko kideak ez garela; ez gaituzte horregatik epaituko. Euskal Herriaren eskubideen aldeko lan horretan guk ekarpena egin izana zigortu gura dute.

Euskal Herri osoko kanpaina abiatu duzue.

Euskaldunak ez gara bigarren mailako herritarrak; herritarrak garen neurrian, dauzkagun eskubideak errespetatu beharrezkoak direla sinisten dugulako sortu da kanpaina. Amerikako Estatu Batuetan afroamerikarrek pairatzen duten basakeria polizialari erreparatuta bururatu zitzaigun *Basque lives matter* goiburu horrekin irudikatzea kanpaina. Izan ere, beltza, euskal herritarra edo siriarra izateagatik, zure bizitzak ez du besteenak baino gutxiago balio. Kanpai-

naren barruan, besteak beste, manifestua egin dugu norbanako eta kolektiboen atxikimenduak jasotzeko; mozioak aurkezten gabiltza bakoitzaren udalean; eta Eusko Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako hainbat erakunderen ordezkariarekin bildu gara.

Jasotako erantzuna zelakoa izan da?

Arartekoekin, legebiltzarkideekin, Jonan Fernandez Eusko Jaurlaritzako Bake eta Elkarbizitza idazkari nagusiarekin, Emakunderekin... batu gara; iaz ere, gu gure egoeraren erantzule egiten garen heinean,

“**Euskal Herriaren eskubideen aldeko lan horretan guk ekarpena egin izana zigortu gura dute epaiketaren bidez**”

uste dugu arduradun politikoek gertatutakoaren gainean erantzukizunak ere hartu behar dituztela.

Orokorrean, inork ez du zalantzan jarri erabat injustua dela egoera; baina nire ustez, emozionalki ez da erabatekoa; nahikoa izan da administrazio publiko ezberdinekin izan dugun harremana: «bidegabekia da, baina ezin dut ezertxo ere egin», erantzun digute. Horrelako jarrerekin, 2010eko bost egun horietan

sufritu genuen babesgabetasuna bere horretan mantentzen dute. Gertatu denaren aitortza politikoa eta soziala egitea beharrezkoa da; berriro ez gertatzeko neurriak hartzea ere bai.

Azken udal batzarrean, Leioako EAJk ere babestu du tortura salatzeke mozioa.

Badakite zer gertatu zen bost egun horietan. Egia da Leioan aurrekaririk ez daukagula zentzu horretan, eta, horrenbestez, positibotzat jo behar dugu. Baina onartu duten adierazpenetik harago joan zitezkeela uste dut. Agian, maila emozionaletatik ari naiz berriro ere...

PSE-EEk eta PPK kontra bozkatu zuten.

Momentu batean esperantza izan nuen PSOEk abstentziora joko zuela; izan ere, jakin badakit Leioan eman nuen hitzaldian alderdi sozialistaren kideren bat presente egon zela, eta egia esaten ari naizela badakiela. Baina, azkenenean, logika politiko orokorrekin pisu gehiago izaten dute horrelakoetan. Hala ere, nik badakit egin zigutena astakeria iruditzen zaiola PSE-EEko zinegotzietako bati.

Bidean jende askoren babesa aurkitu duzue?

Babesgabetasun-egoera orokor horretatik aparte, egia da herri-mailako zein bestelako espazioetan erabat babestua sentitu naizela. Horrek indarra ematen du; maiatzaren 17an aldarte hobeagoarekin joateko nahitaezkoa da babes hori. ◀



Askartzako waterpolo-taldeek denboraldi bikaina egin dute aurten. © URKO BILBAO

Askartzako izurdeak

Askartzako waterpolo-taldeek garaipenak metatu dituzte oraingo denboraldian. Besteak beste, emakumeen taldeak Euskal Herriko Liga eta Kopa lortu ditu.

Askartza Igeriketa Klubaren waterpolo-taldea Espainiako Lehenengo Mailara sartzeko atarian geratu da. Joan Albellak gidatutako emakumeek Madril-en jokatu zuten igoera-kanporaketa, pasa den barikuan. Bertan, Mallorca eta Colmenar taldeak itota utzi zituzten, 12-4 eta 14-5 irabazita. Ondoren, ezin izan zioten eutsi Encinas Boadilla

klubaren mailari, eta 3-9 galdu zuten horren aurka. Halere, taldeko bigarrenak izanda, finalaurrekorako sailkatu ziren. Markagailuan 8-3 idatziz, Bidasoa gaingitu, eta finalera pasatu ziren leioaztarak. Berritro ere, Encinas Boadilla hobea izan zen, eta 6-9 irabazi zuten finala, eta Espainiako Lehenengo Mailarako txartela. Halere, Gaztelan egindako ahalegina ez da izan Askar-

tzako emakumeen lorpenik handiena. Leioaztarrek Euskal Herriko Liga irabazi dute, Lautada taldeari nagusitu-ta. Hala, oraingo denboraldian balentria berezia egin dute, Euskal Herriko Liga zein Kopa eskuratu baitituzte.

Gizonezkoak

Bitartean, Askartzako gizonezkoen bigarren taldeak Euskal Herriko Ligaren finala jokatzeari ekin dio. Lehenengo partidari, 15-7 irabazi zion CW 9802 taldeari, baina oraindino bueltako dema falta zaie; maiatzaren 21ean jokatu dute. Bide berean, mutil gazteen wa-

terpolo-taldeko kideek 10-8 nagusitu zitzaizkien Nafarroa Waterpolo taldekoei, etxean jokaturako partidari. Horri esker, Espainiako txapelketako finalean izango dira, Terrassan. Azkenik, Askartzako gizonezkoek aurre egingo diote Portugalgo waterpolo-selekzioari birritan. Izan ere, lusitaniarrek lagunarteko txapelketa jokatu dute Euskal Herriko konbinatuaren aurka Gasteizen, maiatzaren 14an, zapatuan, arrastian. Selektzioan Askartzako bost jokalarik izango dira, eta aurreko egunean, Askartza-Portugal dema izango da. ◀

Euskotren Ligarako hautagaiak, aurkeztuta

Uztailaren 9an abiatuko da Euskotren emakumezkoen arrauk-liga, Orion. Bertan, zein hurrengo egunean, Donostian, bandera eta puntuak irabazteaz gainera, ligarako sailkatzen ahaleginduko dira 8 traineruetatik 7. San Juango eskifaia da zortzi estropadetari parte-hartzea ziurtatuta duen bakarra, iazko liga irabazi zuelako. Hibaika, Orio, Donostia Arraun Lagunak-Donostiako Berdintasuna, Hernani, Getaria-Zarautz eta Hondarribiak parte hartuko dute sailkapen-fasean Galiziako Cabo klubagaz batera. Orio eta Donostiako banderen ostean jakingo da zer hiru



San Juan, iaz Getxon. © MAIDER CELADA

traineruk baliatu duten hoberen neguko lana, eta egingo duten boga San Juanegaz batera, Getxo, Bilbo, Pasaia, Zumaia eta Zarautzeko uretan. Getxo-ko hitzordua uztailaren 17an izango da; iaz, San Juan nagusitu zen. ◀

Abrako Gizarte Sariaren III. edizioa abian da

Abrako urek pasa den aste-akabuan hartu zuten III. Gizarte Sariaren lehenengo proba, J80 kategoriako belar-ontzietarako. Abrako Errege Itsas Klubak antolatuta, J80ko ontziek hiru ibilbideri egin zieten aurre; emozioa nagusitu zen, eta sailkapena estu geratu da. Gonzalo Chavarriren *Fin Gol Fin* ontzia eta Ibon Basañezen *Jet Set* berdinduta daude lehenengo postuan, 6 puntugaz. Ramon Zubiagaren *Mando-vi* ez dago urrun, 8 puntugaz. Atzean daude *Pilgrim* eta *Alpega* belarontziak. Gurutzaontzi modalitateko belarontziak ez ziren kaitik atera, domekako haize ufada gogorrenatik. ◀

Saskibaloi-finalak hartuko ditu Erandiok

Bilbao Basket Zale-taldearen Erandio Saskibaloi Taldeak lau finala antolatuko du datorren aste-akabuan Erandioko kiroldegian. Final hori gizonezkoen senior kategoriako bigarren maila bereziari dagokio. Klubak jokalarik, guraso, bazkide, lagun eta zaleei dei egin die bertan laguntzeko. Zapatuan, 16:15ean, BK Music Barakaldo eta Independiente Belgrado Basketball taldeek lehenengo finalaurrekoa jokatu dute. Beranduago, 18:30ean, Basauri ikastetxearen eta Dosa Salesianosaren txanda izango da. Kontsolamendu-finala domekan izango da, 10:15ean; ondoren, finala jokatu dute, 12:30ean. ◀

Getxo Kirolak, Martiartugaz bat



Erabiltzaileek Martiartu klubean ordaindu beharko dituzte kuotak. © GETXOKO UDALA

Getxo Kirolak udal erakundeko bazkideek Erandioko Martiartu klubaren padel-eta golf-instalazioak erabili ahal izango dituzte astegunetan; jaiegunetan ez, ostera. Orain arteko akordioa berritu eta zabaldu dute.

Hitzarmenak, gaur arte, golfari eragiten zion bakarrik, baina aurreantzean, estalitako eta estali gabeko padel-pistak ere erabili ahal izango dituzte getxoztarrek, Martiartuko bazkideek ordaintzen duten prezio berean. Akordioaren helburua da Getxo Kirolak-eko bazkide-txartela dutenek Martiartura bertaratzeko aukera izan dezaten, Faduran Gobela ibaia kanalizatzeko obrek estali gabeko hiru padel

pista-eraitsi baitituzte; hala, kirol-modalitate horretan dagoen pista-eskariari behin-behinean erantzungo dio Getxoko Udalak.

Golfari dagokionez, eskolak jaso eta handicapa lortzeko beharrezkoak diren probak egin daitezke, eta praktiketako zelaia erabili ere bai. Zelai horrek sei zulo eta *putting green* bat ditu. Golf-instalazioen kuotak honako hauek dira: eguneko sarrera 6 euro; hileko bonua 30 euro; hiru hilekoa 75 euro; sei hilekoa 120 euro; bederatzia hilekoa 175 euro; eta urteko bonua 200 euro. Akordioaren arabera, Getxo Kirolak-ek jendearentzat duen arretabulegoetan izena eman beharko du interesa duenak. ◀

Erandio-Erandio martxa, txirrindularien alde

Erandioko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Erandio-Erandio txirrindularitza-martxaren 24. edizioa izango da zapatu honetan, maiatzak 14. Urtero legez, «Bizirik errespeta gaitzazu» goiburupean egingo dute. Daborduko, izena eman daiteke Laboral Kutxan, dagokion diru-sarrera eginez, eta Alzagako Jose Luis Goyaga kaleko Ciclos Altzaga dendan, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Inskripzio-epea barikuan edo 600 kirolzale inskribatzean amaituko da. Erandioko Txirrindulari Elkarteak adierazi duenez, «antolakuntza- eta segurtasun-arrazoiak direla

eta», parte-hartzaileen kopurua mugatu behar izan dute. Horregatik, aurreko martxetako arrakasta dela-eta, gomendatu dute aurretiko inskripzioa ahalik eta lasterren egitea. Gogoratu dutenez, izen-ematea burutuko da ordainagiria eman eta dortsala jasotzean, Ciclos Altzagan, maiatzaren 13ko 20:00ak arte. Betekizunak bete ezean, elkarteak ez du bermatuko lekurik. Txirrindulari federatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta besteek, 32 euro. Probaren irteera eta helmuga Erandioko udaletxearen alboan ipiniko dituzte. ◀

info+: ciclosaltzaga@terra.com / 944 676 101



Goizeko 09:00etan, 93 kilometroko ibilbidea hasiko dute txirrindulariek. © E. T. E.

Jolaseta hockey-taldeak kategoriari eutsi dio

Jolaseta belar gaineko emakumezko hockey-taldeak kategoriari eutsi dio, benetan gaitz bazuen ere. Neguriko emakumeek Espainiako ohorezko mailan mantentzea erdietsi zuten iragan den maiatzaren 1ean, kategorian segitzeko lehiakide zuzena zen Taburiente talde kanariarra 0-1 irabazita. Agonia-garaipena izan zen, neguritarak gutxiago baitziren, epaileak Jolaseta Agata Cardozo jokalaria kanporatu ostean. Baina, partida amaitu baino hiru minutu lehenago, Sofia Viarengoren pasea jaso, eta atezain kanariarra driblatu ondoren, Vicky Gonzalezek tantoa sartu, eta egoera irauli zuen.



© JOLASETA

Hala ere, getxoztarrek besteen emaitzen menpe zeuden, jaitsi ala mantentzeko. Azkenean, Santanderreko Tennis taldearen berdinketa baliatu ahal izan zuten, partidaren azken txanpan Polok berdindu baitzion. ◀

Barrikako pala-txapelketan izen-ematea, zabalik

San Juan jaietako binakako pala-txapelketan inskripzioa egin daiteke daborduko. Bikoteek hilaren 19ra arte izango dute epea izena emateko, euren datuak posta elektronikoz bidaliz. Egun horretatik aurrera, txapelketa abian ipiniko du jai-batzordeak; izen-emateen arabera ligaxkak antolatu eta partida-egutegia zehaztu. Partida guztiak Barrikako frontoian izango dira. Finala, San Juan jaietan izango da, ekainaren 26ko eguerdian. Hiru ligaxka aurreikusi dituzte: neska-bikoteak, mutil-bikoteak, eta mistoa. ◀

izen-ematea: barrika.j.b@gmail.com
/ liburutegia@barrika.net

Jon Zabala, beste hiru urte Avironen

Jon Zabala Baionako Aviron taldeko errugbi-jokalaria getxoztarrek hiru denboraldi gehiagorako sinatu du Baionako taldeagaz; Zabala Getxo Rugbytik hara joan zen jokatzeko, denboraldiaren hasieran. Hala, 2019ra arte izango da Lapurdiko klubean, ProD2 mailan, Frantziako errugbiaren bigarren mailan. Avironek 28 partida jokatu ditu, eta sailkapeneko bigarren lekuan da, 82 puntugaz. Zabalarikostatu zaio moldatzea, besteak beste zelaiko lekua aldatu diotelako. Getxon bigarren lerroan jokatzeko, baina Baionakoek egokiago ikusi dute lehenengo lerroan ipintzea, eskumatik. ◀

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI aterakoa den badakizu?



Musiketan zikloa

Nouvelle Vague
kontzerturako 5 sarrera bikoitz
dauzkagu, Producciones
Serranoren ekimenez

Maiatzak 22, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Maiatzaren 18a baino lehen,
helarazi erantzuna, zure izen-deiturak,
eta harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus
94 491 13 37

5€



ARKAITZ
ALGORTA
Maite zaituztenen
partez

Zorionak, Arka! Danok etxean aske
ospatu arte, Algortatik osasuna,
maitasuna eta askatasuna! Egun
polita izan ezazu, muxu handi bat!
Presoak sorterrira!



ANER
ITZURBALTZETA /
ROMO
Etxekoen partez

Etxeko erregeak 5 urtetxo bete ditu!
Zorionak, maitea; onena opa dizugu!
Musu handi bat eta gehiago aita, ama,
Enara, osaba, aitite eta amamaren
partez. Maite zaitugu!



AITOR
ALGORTA
Maite zaituztenen
partez

Zorionak, Cotano! Danok etxean
aske ospatu arte, jaso edozein
horma gainditzeko beste elkertasun.
Osasuna, maitasuna eta askatasuna!
Presoak sorterrira!



MAIDER
ASTRABUDUA
Lagunen
partez

Ez zenuen pentsatuko zure
urtebetetzea ahaztuta geneukanik,
ezta?! Gura baino gutxiagotan elkar
ikusten dugun arren, aurkituko dugu
unea ospatzeko, ezta? Zorionak!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Harrigarria bada ere, familiakoak zure bizitza
pozgarria izan dadin ahaleginduko dira. Zerbai-
ten atzetik ibiliko dira?



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Sargoriaren eraginez, barruan daramazun udabe-
rria azaleratzeko irrikan zaude. Lasai! Itxaron,
eguzkiak gogor jo arte.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zure umorea ona ez denean, badirudi norbai-
ti kosk egingo diozula. Kontrola zaitzez, eta ez
mehatxu egin horren erraz.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Jaramonik ez egin ingurukoaren esamesei. Gustura
bazaude, zuri bost besteek zer dioten. Mesede
eske badatozkizu, hor konpon!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Dietak ez du miraririk egingo. Hazi zaizkizun buz-
kantzak kendu gura baduzu, ariketa fisikoaren
garrantziaz jabetu beharko duzu.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Haserretuta zabilta pertsona batez, baina ez
diozu ezer esan. Gauzak bere lekuan utzi behar-
ko dituzu. Ez zenuke arazorik izan behar.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Arazotxoren bat konpontzen saiatu zaren bakoit-
tzean, kontuak erabat aldrebestu dituzu. Lasai
egon, ez da zure errua.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Kale gorrian dagoenari ezin zaio bota iragarpen
ponposorik. Horrela sentitzen zarenez, ez dugu
zaurian atzamarra sartuko.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Poltsikoan ogerlekorik ez, eta, hala ere, denetarik
erosteko behar konpultsiboa daukazu. Bila ezazu
truke-azokaren bat.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Norbaiti ezustekoren bat emateko irrikan zaude,
era berezian, gainera! Plana aurretik ondo pen-
tsatu, barregarri geratu ez baduzu gura.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Gorputzean, zerbait ondo ez dabilera ohartu
bazara, ez egin ezikusiarrena; sendabidea ipini
ahalik eta lasterren.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Zure lagun bat bisitatzea joango zara laster.
Aspaldidanik ikusi ez duzun, bere itxura-alda-
ketak harrituko zaitu.

Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!



Gure lana, Zure ekarpenak,
Denon babesa eta parte-hartzea,
Bultzada ekonomikoa ere bai!

Urtean
35€
baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

hiruka zaitetz!



Trukean: zozketak, sariak,
astekaria eguaztenero...



Errugbia, muga barik

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Zapatuan abiatu zen Hego eta Ipar Euskal Herriko errugbi-kluben arteko sariketa. Getxo Rugby Taldea da klub horietako bat, nahiz eta talde gaztea indartzeko, elastiko hori-beltza jantzi dutenetako batzuk Durangoko errugbi-taldekoak izan. EAEko eta Ipar Euskal Herriko eta Landetako federazioek antolatutako lehiaketan, Getxoz gainera honako taldeek ere parte hartzen dute: Gernikak, Hernanik, Ordizia, Senpererek, Bardozeak, Baionako Kirol Elkartek, eta Lapurdiko Bokale eta Landetako Tarnos herriak batzen dituen BTS taldeak.

Lehiaketak hiru jardunaldi izango ditu. Lehenengo pasa den zapatuan izan zen; bigarrena datorren zapatuan jokatu da, eta azken eguna, ostera, maiatzaren 21ean izango da. Lehenengo bietan, partidak binaka jokatzen dabilta, bakoitzari dago-kion errugbi-zelaian. Finalaren egunean, aldiz, zortzi taldeak batera zelairatuko dira, eta hirugarren denbora ere elkarregaz pasatzeko aukera izango dute. Oraingoz baieztatzeke dago final hori zein herrian egingo duten. Era berean, martxoan iragarri zuten Euskal Herriko Ipar eta Hegoko 18 urte azpiko emakumezkoen konbinatuen arteko partidaren nondik norakoak ere zehazteko daude. Lehenengo jardunaldian, Getxo eta Durangoren arteko taldeak bisita egin zion Senpereri, Herri Urratsen bezperan. Lapurtarrak 27-12 nagusitu zitzaizkien bizkaitarrei. Ana Masa Getxo Rugby Taldeko prentsa-arduradun itzurbaltzetarrak azaldu duenez, atzeritik etorritako

jokalaria ez dabilta lehiaketa honetan; horregatik taldea sendotzeko beharra izan dute, eta Durangoko klubaren laguntza izan dute. Halere, onartu duenez, Senpereren aurkako partidaren jokalaria getxoztarrak «ez ziren oso pozik geratu». Markagailuaz aparte, horren azalpena da taldea «nahiko presaka» osatu behar izan dutela: «aste berean pare bat aldiz entrenatzeko aukera baino ez dute izan», gogora ekarri duenez. Bat dator beragaz Aratz Gallastegi entrenatzaile berangoztarra. Gallastegik Durangoko taldeko

**Aratz Gallastegi:
«positiboagoa da Iparraldekoakaz
jokatzea, bai errugbi aldetik,
bai herri moduan ere»**

gazteak entrenatzen ditu, eta klub horretako kirolkoordinatzailea da. Gogora ekarri duenez, «guk izena eman genuen txapelketan parte hartzeko, baina Hego Euskal Herritik lau talderentzako lekua baino ez zegoen. Lehenastunagatik, Ohorezko A Mailakoei zegokien lekua, eta izena eman zuten laurak: Ordizia, Getxok, Gernikak eta Hernanik. Orduan, gu kanpoan gelditu ginen, leku barik. Pasa den astean Getxotik deitu ziguten jokalaria-kopuru aldetik larri zebiltzala-eta, ea guk lagunduko geniekeen. Gu, pozik; baietz! Guretzat garrantzitsua delako klub mo-

duan txapelketa horretan parte hartzea. Hala, azken unean ibili ginen ea zein jokalarik ahal zuen, eta zeinek ez. Bi eguneko kontua izan da, azkenean, hori antolatzea. Lortu genuen taldetxo bat eratzea Getxo-koakaz batera, Durangotik zortzi edo bederatziz joan baitziren Senpere aldera. Han batutako jokalaria denak oso pozik ibili ziren», gaineratu du berangoztarrak. Eskertuta egin du berba Getxoren ganean: «guri aukera eman izana garrantzitsua da guretzat. Pena da azken momentuko kontua izan dela, eta jokalaria askok jada euren planak egin zituztela; haldabe, gustura hartu dugu».

Ana Masa itzurbaltzetarrak ere pozik hartu du Euskal Herri osoko klubaren lehiaketa: «iniziatiba ona da, polita; ekimen ederra da klubak elkartzeko, adiskidetzeko». Balizko hurrengo edizio baterako, kontu batzuk hobe daitezkeela uste du. Lehiaketa, «agian, hurbilegi dago Ohorezko Ligatik. Hori amaitu, eta, hurrengo astean bat-batean, Ipar Euskal Herrian jokatu behar izan dugu. Hori gorputzak nabaritzen du. Gainera, hiru partidak elkarren segidan izatea ere hurbilegi-edo da». Txapelketa amaituta egingo du klubak horren inguruko hausnarketa. Bitartean, Baionako Kirol Elkartearen partida prestatzeari ekin diote. Getxoko emakumezkoen kapitainak azaldu duenez, klubeko jokalaria ez daude berriro mugaz haragoko beste talde batez jokatzeko. Getxo Rugbyk lotura handia dauka Baionagaz, baina hiriko beste taldeagaz, Avironegaz. Getxoren



Mugaz gaindiko torneoak
antolatu dute Euskadiko Errugbi Federakundeak eta Euskal Kosta eta Landetako Errugbi Komiteak. Getxo Rugby Taldea lehiaketan parte hartzen dabil, Durangoko taldeko hainbat kirolarigaz batera.



© GETXO RUGBY TALDEA / BARDOZE K. B. / BAIONAKO K. E. / BTS / SPUC

eta Avironen errugbi-eskolak batu izan dira hainbatetan; azaroan eta otsailean elkartu ziren Baionakoak azkenengoz, lehenengo Faduran, eta gero, Baionan. Hori dela-eta, Masaren arabera, Baionako Kirol Elkartearen aurkako «partida polita izango da, giro aldetik. Ez dakit jokoaren mailari dagokionez zelan irtengo den, baina ziur nago giro ona izango dela». Durangon jokatu dute dema, 16:00etan.

Txapelketa zelaian gozatzerik izango ez duena Jon Zabala da. Getxoztarrak Baionako Aviron taldeagaz sinatu berri du kontratua beste hiru urterako, eta leher eginda dago aurtengo denboraldia dela-eta: «nahikoa izan dut denboraldian. Gustatuko litzaidake lagunakaz jokatzeko, baina gustura gelditu naiz. Harmailatik ikusiko dut». Zabalak gogoko du Euskadiko Errugbi Federakundeak eta Euskal Kosta eta Landetako Errugbi Komiteak martxan ipinitako sariketa. Bere ustez, «nahiko ondo dago Iparraldeko eta Hegoaldeko errugbi-taldeak batu eta elkarrekin jokatzeko. Uste dut ondo datorriola Euskal Herriko errugbiari, maila igotzeko eta ondo pasatzeko».

Bitartean, baionesak hartuko ditu Durangon Aratz Gallastegik. Azaldu duenez, «Getxori eskatu genion mesedez partida hori Durangon egitea. Lehenengo jardunaldirako Getxok jokalaria gehienak ipini zituen, baina hurrengo bietarako gutxiago izango dira, eta, kontrakora, gu gehiago. Aurretik, eguean, Durangotik Fadurara hurbilduko dira Getxoak azkeneko entrenamendu-saio bat egitera, apur bat elkar ezagutzen segitzeko. Arerioa, daborduko, aztertuta dauka Durangoko koordinatzaileak. ASB Baionako Kirol Elkarteak pasa den aste-akabuan etxean galdu zen Ordiziaren aurka, 26-40. Gallastegiren berbetan,

«nahiko erraz irabazi zien Ordiziak, baina horrek ez du askorik esaten, ez dakigulako Ordiziak zelango taldea eroan zuen». Era berean, garrantzia eman dio zapatuan sortuko den giroari: «partida hori edukiko dugu, eta gero hirugarren denbora jatorra egin gura dugu. Gainera Europako errugbi-txapelketako finala izango da, eta telebistan ikusiko dugu Rugby tabernan; giro alaia izatea espero dugu».

Plan estrategikotik abiatuta

Iñaki Laskurain Euskadiko Errugbi Federakuntzako presidentek pasa den otsailean azaldu zuenez, Euskal Herri osoko taldeen arteko lehiak sustatzea jaso zen iaz egindako plan estrategikoan, klubek hala eskatuta. Orduan adierazi zuenez «federazio biok Bida-

Ana Masa: «Euskal Herri osoko klubaren sariketa inizatiba ona da, polita; ekimen ederra da klubak elkartzeko, adiskidetzeko»

soaren bi aldeak arteko jarduerak sustatzearen alde gaude erabat, maila orokorrean. Guretzat gakoa da, baina ondo aztertu behar ditugu eman beharreko pausoak. Partekatutako beharrak daude, baina ezberdinak dira errealitateak, inguru administratiboak eta politikoak, baita ikuspegiak, kulturak eta funtzionatzeko erak ere».

Laskurainek gogora ekarri zuenez, mugaz gaindiko lehiak etorkizuna izan dezaten «erabakigarria izango da klubaren jarrera, eta berba egiteak behar egitera pasatzeko gai izango garen. Federazioak



jada martxan jarri gara. Gainera, ez dugu ezer asmatu. Berraz dezakegu orain dela urteak egiten zena, Urrezko Usoa sariketa bidez egiten zena, euskal federazioak eta Euskal Kosta eta Landetako Errugbi Komiteak garatzen zutena. Orduan, Komitearen presidentea Pierre Camou zen, Frantziako Federazioaren gaur egungo presidentea. Lehiaketa hartan parte hartu genuen Getxok, Hernanik eta Ordiziak, nik dakidala, eta Iparraldeko eta Landetako hainbat taldek». Gallastegik akorduan du sariketa hura: «urte batzuetan martxan izan zen. Hori jokatzen zen aurre-denboraldian, abuztu amaieran, irail hasieran, buelta horretan. Garai hartan, uste dut Avironek eta Miarritzek ere parte hartzen zutela. Buruz nabil, agian... orain dela 20 urte izan baitzen!».

Iazko plan estrategikoa idazten parte hartu zuen berangoztarrak, eta badaki orain arteko bidea ez dela erraza izan: «Ahalegin askoren ondoren, azkenean lortu dute bai Iparraldeko bai Hegoaldeko federazioek bat egitea horrelako kontu bat martxan jartzeko, behintzat lehenengo urte honetan. Ikusi beharko da hurrengo urteetan zer gertatzen den». Gallastegiren ustez, «estrategikoki guretzat hobe da hori; gurago dugu Ipar Euskal Herriko taldeak jokatzea, eta elkartzeko indartzen bada, datozen urteetan errepikatzen aukera egongo litzateke: talde gehiago sartu eta liga moduko bat jokatu ahal izateko. Guk nahiago dugu Senperera eta horrelako tankerako bidaia egitea, bai errugbi-maila aldetik bai bidaia beragatik, Galiziara, Burgosera edo Bartzelonara joatea baino. Gaur egun hori egiten gabiltza Ohorezko B Mailan. Alde guztietatik positiboagoa da Iparraldekoak jokatzeko, bai errugbi aldetik, bai herri moduan ere, horrela ulertzen dugulako klubean».



Lehen/Orain

Rontegiko zubia (Erandio), 1978-79



© TAKOLOS IRRATI-KLUBA

Erretratua

J. Martin Fernandez Etxebarria

Afizioz eta ofizioz, Plentziako eta Barrikako medikua



Medikuaren ogibidea bokaziozkoa dela uste du sendagile barrikoztarrak. Ia bizitza osoa daroa ingurukoak artatzen, Barrikan eta Plentzian, etxez etxe.


Mediku izatea da Juan Martin Fernandez Etxebarriaren ogibidea; halere, sendagile izatea lana baino gehiago badela argi dauka barrikoztarrak, «ogibidea bada, noski; zeozertaz bizi behar da, baina joera berezi bat izan behar da: bokaziozkoa». Orain dela 39 urte amaitu zituen medikuntza-ikasketak, eta horiek burutu ostean, Leoneko herri batera joan zen beharrera, urtebete. Gero, Turtziozera (Bizkaia) etorri, eta bertan 8 urte eman zituen. Jarraian ikasketa bereziak egin zituen medikuntza barruan, kardiologia, berbarako; eta horien ondoren, 1987an, lekualdaketa eskatu zuen, Plentziara, «behar besteko meritua nituen-eta!». Garai hartan, Plentzia eta Barrika batera zihoazen medikuen kontuetan; hala, barrikoztarrek alboko herriko osasun-etxera joan behar zuten kontsulta hartzera. Halere, orain dela 10 urte, kontsultak egiten hasi ziren Barrikan Martin eta beste hiru mediku.

«Astero bisitak egiten hasi ginen, baina azkenean Barrikak mediku bat gura zuen herrian, eta niri eskatu zidaten...». Hala, Plentziako anbulatorioan behar egiteaz gain, lau-pabost urte daroatza Barrikako bizilagunak sendatzen herriko kontsultategian. Horrez gainera, egoitzetan kontsultak eta etxez etxeko

“Datorren urtetik aurrera hasiko naiz pentsatzen noiz jubilatuko naizen”

bisitak ere egiten ditu, «kronikoren batek edo adinekoren batek behar izanez gero». Etorkizunari begira, Martinek argi du zer egin gura duen: medikuntza-teorietako irakurketan murgildu, «kardiologian eta genetikan, batez ere; eguneratuta egoteko». Ostera, aitortu duenez, datorren urtera arte ez dio jaramonik egingo jubilatzeiko kontuari. ◀

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua